



—erreportajea:
**NERBIOI RUGBY
 TALDEA >**
**150 haur eta gazte
 zaletu batuko ditu
 errugbi topaketak**
 12. or

Sozio-ekonomia
 Lan hitzarmen
 kolektiboa berritu
 dute Tubacex-eko
 langileek 6. or.

Jendartea
 Jaio berriei ongi
 etorria egiteko
 "Atsolorra" festa
 Urduñan 11. or.

Iritziak:
 ANDONI ALDEKOA 2. or.
**IZASKUN
 GARCIA** 6. or
 JONATAN
 MORENO 7. or.
INMA ROIZ 10. or.
 MATEO
 PAGAZAURTUNDUA 11. or.
IÑAKI ISASI 13. or.
 ITZIAR URKIJO
 CELA 16. or.

aiaraldea



Aiaraldeko
 hamabostekaria
 2014 /// apirilaren 10a ///
 13. alea ///
 Doan ///
www.aiaraldea.com

Ehunka herritar mobilizatu dira Saratxoko saihesbidearen aurka



Dolumin Barikua:
**124 urtez abeltzain
 eta baserritarren
 topaleku**



Dolumin Barikuko azoka ospatu-
 ko da ostiral honetan Laudion. Au-
 rreko urteetan bezala, aurtien ere
 tokian tokiko rproduktuak dastatu
 eta erosteko eta abereak ikusteko
 aukera egongo da. 50 postu baino
 gehiago egongo direla aurreikusi
 dute antolatzaileek.

Tradizio handiko azoka da Do-
 lumin Barikukoa. 1890an ospa-
 tu zen lehenbiziko aldiz. Orduz ge-
 rozitik hainbat leku eta formatu al-
 daketa izan ditu azokak. Baina, al-
 daketak aldaketa, festa herrian
 erroto da. Eskola batzuetan hau-
 rrek jai izaten dute egun horretan,
 azokaren antolatzaileen ustetan.
 Gaur egun, Udalaren eta Aberedu-
 nak elkartearen artean antolatzen
 dute azoka.

SAN PRUDENTZIOAK Arabako patroia eguna ospatuko da **Apirilaren 28an.**
 Barraskilo jana eta danborradak izango dira nagusi eskualdean 8 or.



YANDIOLA
 HORTZ KLINIKA LAUDIO
1945. urtetik Laudion zurekin

Karmen Kalea 13, behea
 LAUDIO (Araba)
 946 72 31 00



PADI
 HAUREN HORTZAK ZAINTEKO
 PROGRAMA. ARRETA EUSKARAZ
 ESKAINTZEN DUGU.



INPLANTEAK
 GALDUTAKO HORTZ ETA HAGINAK
 ERRAZ ORDEZKATU DAITEZKE
 METODO HONEKIN.



3D ERRADIOGRAFIK
 AHOAREN ETA HORTZEN
 ERRADIOGRAFIK 3 DIMENTSIOTAN
 EGITEN DITUGU.

_iritzia



Andoni
Aldekoa
KAZETARIA

_Leihotik

Mugakoak

Mugako herriak ez dira ez alde batekoak ez beste-koak. Hori ondo baino hobeto dakigu laudioarrok. Ez gaituzte bizkaitartzat hartzen, ezta arabartzat ere. Batzuetan aiartatzat ere ez —ni neu aiarra sentitzen naiz—. Honek Laudiokoa izatearen harrotasuna areagotu eta lotura emozional hori eragin du.

Kokapen inbidiagarria, tamainaz behar bezain txikia eroso izateko eta behar bezain handia zerbitzuak eta giroa izateko. Nerbioi goieneko burua ginen zalantzarik gabe, eta herrialdeko industriagune garrantzitsuenetako bat. Tradizio sakonak.

Azken 20 urteak ez dira onak izan Laudioarekin dugun atxikimendu estu horri dagokionez. Ez horrenbeste sentimendu hori zainetan daramagunontzat, belaualdi berrientzat baizik. Ia-ia ez daukagu iraganeko aztarrenik, Lamuzako Parkea eta beste zer edo zer baino ez. Indarra eta izaera industrialak galdu dugu.

Udalerrri guztiak haziz zihorazten garaian, guk denbora galitzen jardun genuen, eta gazteek inguruko herrietara jo zuten Sanrokeak eta au zoetako jaiak... nola gogoratzen ditudan Aretakoak!

Asteburuetan ez dugu giro-alternatibarik eskaintzen; jendea herritik joan edo "loka-lean" gordetzen da. Kolektiboek kosta ahala kosta irauten dute. Zertan da eskola-kirola asteburuetan?

Ez dut jarraitu behar. Ez dut nostalgikoa izan nahi. Baina go-goan hartu beharreko gauzak dira.

Laudiok bere lekua aurkitu behar du etorkizunerantz bidean. Oso argi izan behar du zer izan den eta zergatik izan den izan dena. Kritikoa izan behar du orain denarekin. Eta argi izan behar du zer izan nahi duen.

Orain lurralde-ikuspegiak hitz egiten da. Hots... Laudioko lurralde-ikuspegia.

Bilborekiko lotura. Athletic-zalea izatea. Ehun produktiboa mantendu eta aukera berriak jorratzeko premia. Inguruan dituen naturguneekiko hartu-emanak. Eskualdean duen lidergoa. Oreka soziala.

Eta batez ere, sentimendu kolektibo hori. Audio emozioz bizi. Baina sentitu eta bizitze-ko, etorkizunerako aukera izan behar du.



Marisa
Langilea

Nire kasuan ez, plan bera egiten jarraitzen dut. Mendiko Lagunak taldearekin joan ohi naiz eta nahiko merkea da. Krisialdiak eragina duela uste dut, eta jende asko horregatik herrian geratzen dela. Hala ere, ez da herrian jende asko geratzen. Batzuk familiaren herrira joango dira seguru asko.



Aitziber
Optikako langilea

Aurten etxean geratuko gara, bai diruagatik eta baita seme-alabengatik ere. Herrian geratzen garen lehen urtea izango da hau, lehen beste leku batzuetara bidaiatzen genuen. Abuztuko oporren eta Aste Santuko artean bakarra aukeratzen dugu. Amurrioko kaleak hutsik daude Aste Santuan, baina jendea etxean sartuta dago seguru asko.

?

_GALDERA

Krisiak eragina dauka zure Aste Santuko oporretan?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita

 BIDEOA  WEB-GUNEAN



Ramon
Enplegatua

Nik ez dut Aste Santuan hemendik irteteko asmorik. Normalean ez naiz inora joaten. Eta ez da krisiagatik, ohituragatik baizik. Ez nago Aste Santuan kanpora bidaiatzera ohitua. Nire inguruko jendearen partetik ez dut jaso diru faltagatik Aste Santuko oporrei uko egin dion inoren berri. Jende jaitsiera handia egon ohi da Amurriko Aste Santuan.



Egoitz
Langabetua

Aurten ez naiz inora joango, dirurik ez dudalako eta hemen proiektuak ditudalako. Jendeak Aste Santua egutegian nahiz dagoen hartzen du kontuan oporrak planifikatzeko. Ez da jende gutxiago ikusten Amurriko, azken finean hemen geratzen den jendea kalera irteten delako.



Bakarne
Erizain laguntzailea

Aste Santuko oporretan ni ez noa inora, lan egin behar dudalako. Oporrak, beraz, ahal baldin badut udarako uzten ditut. Amurrio nahiko hutsa egoten da. Berez ez da oso herri bizi, nahiko hilda egon ohi da. Nik ez dut krisialdia nabaritu jendearen opor-ohituretan. Aurten agian igarriko da, baina iaz gutxienez ez zen nabaritu.

TWITTERen

#albisteizanda

@NokaToka Adi!! Zuen txanda iritsi da eta!! Diagnostikoaren ostean IDEIAK behar ditugu LAUDIO GAZTEA ERAIKITZEKO :)

@aiaraldea "Untzueta nafar gaztelua" ekimenak deituta herritarrek Untzueta gazteluaren mugarrira inauguratu dute gaur



@aiaraldea Urduñako 16. Gazte Eguneko abestia jotzen ari dira **@hesiantaldea**-ko abeslariarekin.

@urtzai Dantzari eguna Orozkon. Herriko plazan oraintxe. **@aiaraldea**



TIRADA: 10.000 Ale. Lege gordailua: BI-1230-2013
ERREDAKZIO LANTALDEA: Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila

E-POSTA HELBIDEAK: egunkaria@aiaraldea.com
publizitatea@aiaraldea.com / agenda@aiaraldea.com / agurrak@aiaraldea.com

OHARRA: Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

_gutunak

Patxi eta Manolo Goitia Solauni agurra

Bittor Arbizu (Laudio)

Duela gutxiko astelehen batean gure alaba baten deia jaso nuen Patxi Goitia hil egin zela esanez. Askotan bezala, ez dakizu zergatik baina nahiko lur jota utzi ninduen berriak. Banekian osasunez nahiko eskas zebilela. Orain dela hiru hil edo agurtu nuen azkenekoz Zumalakarregi aldean "¡Patxi, Bittor naiz ...koa!", aulki gurpildunean zegoela, baina ez dakit ea ezagutu ninduen.

Orduak joaten diren neurrian, sarritan, uneko tristuraren arrazoiak argi ikusten ez badituzu ere, denborak pixnaka-pixkanaka zenbait argi-izpi eskaintzen dizkizu. Duela 37 bat urte lanagatik ezagutu nuelakoan nago, niganako begirune berezia erakutsi zidala. Geroago sarri askotan ikastolako atarian elkar agurtu, bere lobaren bila zihoala. Bi edo hiru minutuko agur bat baino ez, baina beti atsegin.

Manolo Goitia, bere anaia, iaz joan zitzaigun. Berez, Lekeitiora autoz eraman nuen udako egun batean ezagutu nuen, gure familiak han oporretan zeudelako. Ordu bateko bidaia hartan Laudiori buruzko datu interesgarrien bat eman zidalakoan nago. Uste dut txikitan Laudioko Euskal Katexima etxean erabiltzen zutela kontatu zidala. Geroago Ugarte-ko dorrearen inguruko zenbait leku-izen aipatu zizkidan eta plano batean zehaztu ere bai. Beti zegoen prest laguntzeko zegoela, baita hauen arre-

ba ere. Manolo, gaixoardiaren ondoren, kalean topatu nuen, oso baikor, eskua emanez azaltzen zituen osatzearen gorabeherak. Denboraldi baten ondoren, bere heriotzaren berri izan nuen, hileta-elizkizunetara joateko asmo tinkoa nuela, baina lan-ordutegiagatik ezin izan nuen. Patxi-
ren omenaldira, aldiz, joatea oso gogorra egiten zitzaidan. Joan naiz, antzeko omenaldi batera, baina aire zabalean. Zubikoko etxe barruan, toki itxi batean, nahiko gaizki pasatuko nuelakoan, ez nintzen joaten auseratu. Gure alabak esan zidanean "loritzen osabaren omenaldira goaz lagunak" bazekien burumakur nengoela, eta ez nintzela joango. Etxean geratu nintzen hitz hauei bueltaka, eta familia osoari doluminak eta une latz horietan elkartasuna eskaini nahian.

Omenaldi egunean, Laudioko eskulangintza tailerrean zebilen gizon batek burumakur aipatu zuen Patxi bezalako gizonik ez zuela ezagutu herrian. Biharamuneko egunean, eskola oraindik zegoela, etxerantz nihoala autoa gelditu nuen eta berriz bere argazkiari erreparatu nion, Patxi irribarre zintzo eta zabala zuela. Irudi hori gordeko dut. Geroago kalean seme nagusiarekin topatu nintzen, elkarrekiko hitzez eta irribare batez agurtzeko aukera izan nuela.


Agur bioi, bihotzez.



Herri-herri

Saratxo

Saihesbide proiektuaren aurkako plataforma sortu dute auzokideek



Saihesbidearen Arabako Diputazioaren planoak. Argazkia: Saratxo Bizirik

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Arabako Foru Aldundiak A-625 errepidearen saihesbidearen lanak hasinahi ditu Saratxon 2014an. Horren aurka martxa informatiboa egin zuten, herrian, igandean. Bertan, Saratxo eta inguruetako ehunka herritar zein politikari ugari bildu ziren.

Izan ere, Saratxoko saihesbideko proiektuak kalte ugari ekarriko ditu, Miguel Anjel Gutierrez Saratxo Bizirik 2.0 plataformako kidearen esanetan.

Horien artean daude autobus zerbitzua etetea, Urduñarekiko komunikazioa oztopatzea, nekazaritza zein abeltzaintzarako lurrak murriztea eta herria erditik zatitzea.

Saihesbidearen proiektua 2005ean erredaktatu zuten. Egitasmoak bi biribilgune jasotzen ditu; errepide nagusiarekin lotura egingo lukeena eta Saratxoko irteera izango litzatekeena. Horrek Saratxotik Urduñara joateko biribil-

gunetik igaro beharra ekarriko luke herritarrentzat. Lekamañakoek, aldiz, 4-5 kilometro gehiago egin beharko dituzte Urduñara iristeko. Hori dela eta, biribilgunea txikitze-ko eskatu dute herritarrek, Arabako Foru Aldundian, "bestela Bizkaibusa eta bestelako zerbitzuak ere ezabatuko dira". Amurrioko udalak bat egin du aldarriarekin, eta saihesbidearen proiektuan aldatketak egitea eskatzen duen mozioa onartu zuen osoko bilkuran, alderdi guztien aldeko bozkarekin, nahiz eta bilkuran alderdien arteko eztabaidak egon zen.

"Gehiegizkoa" iruditzen zaie egitasmoa plataformako kideei. "Ara-kaldon 11.000-12.000 auto igarotzen dira egunero eta ez dute hain obra handia egin. Saratxotik, aldiz, 4.000-5.000 igarotzen dira".

Gainera, abeltzain eta nekazariak izugarriko kaltea ekarriko dielana barmendu dute: "Abeltzain eta nekazariak lanerako leku gabe geratuko dira". 7-8 hektarea hartuko litzuzke proiektuak.

Horregatik, aurrera begira borrokan jarraituko duela azpimarratu dute: "Herri txikia gara, Diputazioaren aldetik borondaterik ez badago protestatzea baino ez zaigu geratzen".

Arrankudiaga-Zollo

Urtea defizitarik gabe bukatzea du xede gobernu-taldeak

ERREDAKZIOA | Markel Iturrizar

Aurtengo aurrekontuak oraindik ez dituzte onartu Arrankudiaga-Zollon. Hala ere, udal taldeak jakinarazi du urtea defizitrik gabe bukatzea espero dutela. Izan ere, 122.344,84 euroko geldikin negatiboarekin abiatu dute 2014. urteko ekitaldia.

Hala ere, iragarri dute Udalak zor ugari kitatu behar dituela, aurreko udal gobernu taldeak erabakitakoak, hain zuzen ere. Izan ere, 2008an 364.122,43 euroko mailegua eskatu zuen EAJk futbol zelaia eraikitzeko eta 2011n hasi zen ordaintzen. Oraindik 199.290,30 euro zor direla argitu du Bilduk. Bestalde, Bilduk salatu du udal hauteskundeak izan baino egun gutxi lehenago 200.000 euroko kreditua eskatu zela eta 2013an hasi dela kitatzen. Hortik 174.000 Dena dela, Udaltutxaren 2009ko likidazio negatiboa dagoeneko ordaindu dela azaldu du Bilduk.

"Defizita eta zorra murrizteko eta inbertsio horiek egin ahal izateko, ezinbestekoa izan da dedikazio handiz eta austeritatez kudeatzea, energia eraginkortasuna lortzeko politika gauzatzea eta gastua zorrotz kontrolatzea", erantsi dute. Beraz, iraganean kitatuta ez zeuden zor horiek, futbol-zelaia egiteko eskatu zen mailegua kasu, legegaldi honetako udalaren ekonomia erabat baldintzatu dute.

Dena dela, iazko metodologia errepikatuko dute: diru zati bat inbertsioetara zuzentzea ea bestea defizita kentzera. Udalaren arabera, ez dute diru partida arlo batean ere ez nabarmen murriztu. Aurtengo aurrekontuetan herritarrek auzo batzarretan egindako ekarpenak kontuan hartuko dituzte.

Dena dela, iaz bezala herri argiterian sakonduko dutela azpimarratu dute, energia aurrezteko asmoarekin. Bestalde, aurtengo aurrekontuetan beste inbertsio bat proposatuko dutela aurreratu dute.

Auzo asanbladak, arrakastatsu

Bukatu dira Arrankudiaga-Zolloko auzo batzarrak. Atxeta eta Zu-loagan izan ezik, beste toki guztietan egin dira. Herritarren inplikazioa eta parte-hartze aktiboak kutsita, balorazioa "oso baikorra" izan dela adierazi du udalak. Izan ere, 82 herritarrek hartu dute parte. Aldi berean, inkesta bat egin dute eta beste 21 erantzun jaso dituzte.

Aiara

Euskara-planaren aholkularitza batzordea osatu du udalak

ERREDAKZIOA | Xabi Zalbide

Aiarako Udalak urrats berri bat egin du 2014-2017 aldirako euskara-plana garatzeko Euskararen Aholku Batzordearen sorrerarekin. Beste bikide berrisartzearekin batzordeagutxi gorabehera osatuta eta aurrera egiteko moduan geratu da. Bertan, besteak beste, talde politikoetako, elkarteetako eta ikastolako ordezkariak daude.

Josu Artetxe alkatea bera izango da talde politikoen ordezkari bertan, eta berak adierazi duenez, haien asmoa da "sektore guztietara" zabaltzea, "ahalik eta adostasun handiena izateko", euskarak "kontsentsua" behar duelako. Gainera, adierazi du "euskaltzale" guzti-guztien ekarpena eskertuko duela batzordeak.

Zeharkako plana

Artetxeren esanetan, euskara planak "transbersala" izateko helburua du, arlo guztietan ezarri eta praktikan jartzeko. Alkateak uste du oraingo udal-gobernua agintean dagoenetik aldaketa igarri dela euskarari dagokionez, ahal den neurrian "lehentasuna" ematen ahailegindu direlako.

Hori dela eta, Espainiako Gobernuak EAEko Ordezkaritzak ohartarazpen bat bidali du kontratazioetan "diskriminazioa" egon litekeelako haien ustez, baina Artetxek adierazi du ez daudela kezkatuta eta "kasurik ere" ez diotela egiten.

Planak, beraz, arlo ugari jasotzen ditu: testuen argitalpena, udaleko erabilera presentziala edota jaietan euskarak duen lekua ere bai. Esate baterako, San Isidro egunean salmenta-postuetan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoa jarri nahi dute praktikan.

San Prudentzio jaiak

2014ko San Prudentzioko jaiak dagokienez, Arespalditza prest dago jaiak hartzeko, eta laster jakinaraziko dituzte egitarauaren zehaztasun guztiak.

Aurten hiru egunek jaiak izango dira, apirilaren 26tik 28ra, eta aurreikuspen oso onak dituzte udaleko arduradunek. Izan ere, aurreko urteotan ez bezala, ez dira ospatu-ko Amurrioko San Jose auzoko jaiak batera, San Josekoak hurrengo asteburuan egingo dira eta. Mendi lasterketa, herri bazkaria, herri kirolak, dantzak, kontzertuak... makina bat ekintza izango ditu egitarauak.

Aiaraldea

3 milioiko aurrekontua onartu berri du Aiarako Kuadrillak



ERREDAKZIOA |

Aiara Batuz, Okondo Bai, eta EAJ-ren babesarekin onartu du Aiarako Kuadrillak 2014ko aurrekontua. Audioko Udaletxean egin zuten bilkura eskualdeko talde politikoek. Omnia, PSE-EE eta PP alderdiek aurka bozkatu zuten, kasu batzuetan gardentasun falta argudiatuz. Bildu, aldiz, abstenitu zen,

aurrekontuak prestatzeko denbora falta salatuta. Hala, Kuadrillak 2.918.747,13 euroko aurrekontua izango du aurten.

Diru banaketa

Zati handiena -1.678.181,41 euro- ingurumen sailak erabiliko du, zaborraren kudeatzeko Okondo, Lau-

dion, Amurrión, Aiaran eta Artziniegan. Programa aitzindaria abiatuko du gai organikoa jasotzeko. Gainera, edukiontziei segurtasun ekipamendua jarriko diete eta zarataren mapa prestatuko dute. Gastu arruntak -hau da, langileak- 262.289,06 euroko saila izango du, eta Euskarak 63.511,12 eurokoa, besteak beste.

Sustapen ekonomikoaren esparrura 540.048,90 euro bideratuko dituzte Kuadrillaren bitartez. Horrekin enplegu programak kudeatuko dute. Gainera, Okondon eta Aiaran 4.000 euro izango dituzte toki-ko ekoizleen jarduerak bultzatzeko, eta hori gauzatzeko erdua zehazteke dago oraindik.

_herriz herri

Amurrio



Irabien alkatea HPNA-aren maketetako bat erakusten Argazkia: aiaraldea.com

Onartutako HAPN-aren aurrelaburpenak eraikuntza mugatuko du

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Apirilaren 8an egindako ezohiko udalbatzan HAPNaren -Hiri Antolamendurako Plan Nagusia- aurrelaburpena onartu zen. PSE-EEK eta EAJk alde bozkatu zuten. Bilduk bozkakritikoa eman zuen, erabilita-

ko prozeduran partaidetzagehiago egon behar lukeela argudiatuz eta lan batzuen finantzazioaren bideragarritasuna argiezu duela ikusten azaldu eta gero. Hau da, Bilduko 5 zinegotzi abstenitu ziren eta 2 zine-

gotzik alde bozkatu zuten onarpena errazteko, HAPN aurrelaburpenak aurrera egiteko gehiengo kualifikatu beharrezkoa baitzen. PP, aldiz, abstenitu zen, plan berriak familia bakarreko etxeak eraikitzea oztopatzen duela uste du eta.

Eusko Jaurlaritzaren irizpideak jarraituz, HAPN berriak eraikitze-ko erabili daitezkeen lursailak mugatuko ditu, demografiaren joera ez baita hazkunderik aurreikusi. Horrek esan nahi du lursail urbano gehiagorik ez dela klasifikatuko. Aldiz, kalifikazio hori duten hainbat bilakaera izango dute eta landa-lurzoruak izango dira etorkizunean. Hori dela eta Batzar Administratiboetan ere aldaketa egongo da. Erakin gehiago egin ordez, dauden etxebizitzaren segregazioa onartuko dute, eraikin bakoitzean etxebizitza bat baino gehiagoregon dadin. Bestalde, mendealdako erronda bukatzeko urratsak emango dira.

Trenbidearen lurperatzea

Dena den, planaren alde garrantzitsuenetakoa trenbidea lurperatzea izan daiteke. Dagoen moduan, trenaren ibilbideak herria bitan zatitzen du eta hori saihestu nahi dute, bi zatien arteko mugikortasuna ahalbidetuz. Lan inportanteak suposatuko lituzke lurperatzeak.

Orozko

Herriko plaza eta Santa Maria kalea konponduko dituzte

ERREDAKZIOA | Lukas Pasandin Sanchez

Orozko udalean, 2013ko kontuak itxi ostean eta 314.000 euroko soberakina dagoela ikusita, gobernu taldeak inbertsio ezberdinak iragarri ditu. Alde batetik, Santa Maria kalea konpontzeko asmoa

daukatela azaldu dute, horretarako, auzoko bizilagunekin bilduko dira kalearen berrikuntza proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. 150.000 euro bideratuko dituzte konponketarako. Beste alde ba-

tetik, Orozkoko plaza konpontzea ere proposatu dute. Proiektu hau aurrera eramateko prozesu parte hartzailea jarriko dute martxan. Obrak 120.000 euroko kostua izatea dago aurreikusia.

Okondo

Udal-aurrekontua onartu da, 70.000 euroko murrizketarekin

ERREDAKZIOA |

Iazko aurrekontuarekin alderatuta 70.000 euroko murrizketa egon da udal aurrekontuetan, Sergio Tato Okondoko alkatearen arabera. Hala ere, aurten hainbat inbertsio egingo direla gaineratu du alkateak. Alde batetik, Udaltxeko obren bigarren faseari ekingo zaio. Horretarako Foru Aldundiatan, Eusko Jaurlaritzaren zein beste instituzio batzuen diru-laguntzak jasoko ditu udalak, Tatok jakinarazi duenez. Obraren kostu totala 266.000 eurokoa da.

Herriko bideetan ere erreforma batzuk egingo dira, eta horretarako 10.000 euro inbertituko direla aurreratu du alkateak. Horretaz gain, beste "obra txiki batzuk" egingo direla gaineratu eta obra horien finantzazioaren zati bat altxortegiko soberakinarekin egingo dutela azaldu du. Altxortegiaren soberakina 150.000 eurokoa da eta Kultur Etxearen erreforma egiteko ere zati bat bideratuko da. Foru Aldundiak bolatokia konpontzeko materiala emango diela gaineratu du alkateak, eta bolatokia auzolanean konponduko dutela aurreratu du. Udaleko arlo bakoitzari dagozkion partidak, aldiz, zeuden bezala mantentzeko asmoa dute, Tatoren hitzetan.

Bozketan Okondo Bai abstenitu egin zen eta EAJak kontrako boza eman zuen. Aurrekontuak aztertzeko 6 egun baino ez dizkietela utzi esanez argudiatu du Roberto Aretxabalak, EAJko zinegotziak, kontrako bozka, eta legalitate txosten bat aurkezteko asmoa adierazi du, legearen arabera ogasun batzorde bat egin behar delako, eta ez delako egin.

Arespalditza

Azalpenak eman eta 104.000 euroak itzuli ditu aurreko alkateak

ERREDAKZIOA |

Santos Ibarretxek, Arespalditzako Batzar Administratiboko kide eta aurreko alkateak, adierazi du falta ziren 104.000 euroak itzuli dituela. Azken Kontzejuan. Bileran azaldu duenez, diru hori inbertsio bat egiteko erabili zuen lortutako etekinekin Gizarte Etxearen eraikuntza merketzeko. Diruarekin Gizarte Etxearen lanei aurre egiteko aukera izango du Arespalditzak eta beraz, ez dio uko egin beharko Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskainitako diru-laguntzei.

Artziniega

Balkoietan ikurrina jartzeko deia egin dute EAJk eta Bilduk

ERREDAKZIOA | Unai Gotxi

Carlos Urquijok, Euskadiko Espainiar Estatuaren ordezkariak Artziniegako udaletxearen banderen tamaina handitzea proposatu dio udal gobernuari. Auzia martxoko udalbatzara eramanez. Horren harira, aurreko ostegunean EAJ eta Bilduko zinegotzien aldeko botoekin udalak Artziniegako herriari Aberri Egunean parte hartzeko deialdia egin zuen.

Horretaz gain, herritarrei leiho eta balkoietan ikurrinak jartzeko deialdia luzatuko diete.

“50 URTE BAINO GEHIAGO BADITUZU, AZTERTU ZURE ENTZUMENA”

ENTZUMEN-ARAZOAK DETEKTATZEKO KANPAINA 2014

APIRILAREN 1etik MAIATZAREN 31ra
ENTZUMEN-AZTERKETA DOHAINIK

WIDEX
AUDIOFONOAK

LUYANDO ENTZUMEN-ZENTROA
Elexondo, 1. Amurrio. T. 945 892 422
Pío XII, 3. Laudio. T. 944 042 286
Barria Kalea, 5. Urduña. T. 945 384 499

OPARIA

*50 urtetik gorakentzako promozioa stocka bukatu arte

EZ EZAZU AUKERA HAU GALDU

**SAMSUNG GALAXY S4
ETA SONY XPERIA Z1**

4€/hil

INFINITA 25 REKIN

DENDA YOIGO
Ezka, 3. 01400 Laudio.
Tfnoa.: 944 062 279

yoigo

_herriz herri

Laudio



Ezohiko Osoko Bilkuran onartu dituzte aurrekontuak Argazkia: aiaraidea.com

Udal aurrekontuak onartu dira, abstentzioak hitzartuta

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Martxoaren 31ko udalbatzan egondako eztabaiden ostean onartu dira 2014ko aurrekontuak, ezohiko udal osoko bilkuran. Bilduk eta EAJk agiria sinatu eta gero, jeltzaleak abstentitu egin dira eta horren ondorioz Audioko Udalak aurrekontuak izango ditu 2014an.

Gainerako alderdiek ez dute boza aldatu; Omniak eta PPK aurka bozkatu dute, PSE-EE abstentitu da eta Bilduk aldeko boza eman du. Mikel Lasa EAJko bozeramaleak azaldu du hedabideen aurrean zergatik aldatu duten bere boza jeltzaleek. Haien ustez, 2013an haiek proposatutako hainbat inbertsio ez dira bete eta horren aurrean bermeak

behar dituzte 2014ko aurrekontuei begira. Horregatik, EAJk agiria prestatu zuen, bere proposamenak bertan jaso eta Bilduren sinadura ez ezik, alkatearena ere eskatu zuen. Dokumentuak, balio legala ez izan arren, "balio politikoa du", Mikel Lasaren ustez.

Jeltzaleen hainbat proposamen jasotzen ditu agiriak. Horietaz gain, konpromisoak hartzeko eskatzen dio dokumentuan udal gobernari. Konpromisoen artean hurrengoak daude: elkarte eta kultur taldeei diru-laguntzak mantentzea, udal diru-laguntzak audioarren beharren arabera handitzea, Gardeatik Nerbioi kalera asfaltoa be-

rritzea, Zumalakarregiko argiteria sistema berritzeko LED sistemajartzea, Alberto Aceron dagoen orubea herritarrek erabili dezaten egokitzeko lanak egitea eta Ugarteko plazaren erreformagartzea. Horretarako, 116.000 euroko partida eskatu dute eta Udaletxe alboan dagoen orubearen proiektua prestatzea.

Egindako akordioaren harira EAJri puntu bat kentzeko eskatu ziotela azaldu du Natxo Urkixo (Bildu) alkateak. Puntu horretan Lamuza Parkea proposamen bat EAJrena izango balitz bezala azaltzen zen, egitan ekimen herritar bat zenean.

Pregoiariak proposatzeko epea apirilaren 15ean itxiko dute

ERREDAKZIOA | Aitor Fernandez de Pinedo

Laudioko San Roke jaietako pregoiari hautaketaren lehen fasea jarri du abian Udalak. Herriko postontzietara banatzen den ZUIN informazio agendak, 2014ko jaiak iragartzeaz arduratuko den pertso-

na edo talde proposamenak jasotzeko galdetegia jaso du. Apirilaren 15a bitartean hartuko dituzte betetako kupoiak Kultura, Kirol eta Jai arloko bulegoetan. Udal web atarian ere bozkatzeko aukera zabaldu

dute "Laudioko jaietarako pregoiari, zure hautagaia proposa ezazu!" estekaren bidez. Idatzizkoetan bezala, proposatutako pregoiari eta hautagaitzaren arrazoiak luzatu beharko dira.



Telefonikak Latorron du antena Argazkia: aiaraidea.com

15 eguneko epea eman dio Udalak Telefonikari Latorroko antena kentzeko

ERREDAKZIOA | Aitor Fernandez de Pinedo

Laudioko Udalak Latorroko auzo-batzarra deitu du hilaren 10era, 19:00etan, Latorro eskolan. Telefonica Móviles de España enpresak auzoan duen telefono eramangarrietarako antenaren auzian izandako azken gorabeherak azalduko dituzte bertan.

"Auzokideek auziaren inguruan izan ditzaketan zalantzak argitu eta zertan ari garen azaldu nahi dugu" adierazi du Koldo Zabalak, Bilduko gobernu taldearen bozeramaleak. "Auzokideen ekarpenak ezagutu nahi ditugu", gaineratu du.

Azken udal hirigintza batzordean gainerako taldeei eskainitako informazioa auzokideen esku jarri nahi du Bilduren gobernu taldeak auzo

-batzarrean, Udalak Telefonikari antena ixteko iragarri berri dion 15 egunetako azken epeak auziaren fase berria ireki dezake eta.

Latorroko antena San Bartolomera eramateko konpromisoa berretsi du Udalak hainbatetan. Neurri horren aurrean enpresak aurkeztutako azken errektuak ezeztatu erantzuna jaso ondoren, Udalak Aste Santuko ospakizunak hasi arte eman dio epea Telefonikari antena kentzeko. "Telefonikak ez du orain arte antena San Bartolomera eramateko asmorik azaldu. Hala ere, antena tokiz aldatzeko plana aurkeztuz gero, malguak izateko prest gaude", adierazi du zinegotziak.



PROIEKTU GRAFIKOAK
PROYECTOS GRÁFICOS
GRAPHIC PROJECTS

HILTEGIA MATADERO
LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO

SEINALEZTAPEN ETA ERROTULAZIOA,
GUNE ETARAKO GRAFIKA ///

Telleria 2 LAUDIO
www.grafiksarea.com
info@promo-grafik.com
Tel: 94 672 65 43
M: 615 75 85 92

GUREKIN
ERE
EUSKARAZ!

EL TUNEL
TABERNA-JATETXEA

EZKONTZAK / BATAIOAK / JAUNARTZEAK
DESPEDIDAK / AFARIAK / BAZKARIAK
ETXERA ERAMATEKO JANARIA PRESTATU
ETA BILDOTSAK ERRETZEN DITUGU

OSTIRAL eta LARUNBATETAN HANBURGESAK, OGITARTEKOAK...

Gasteiz kalea 5, ARETA-LAUDIO Tlfnoa: 94 672 05 58

_sozioekonomia



Izaskun
Garcia
LAB

_Argia

Emakumeok
erabakitzeko
eskubidea!

Ekainaren 8an Euskal Herriak nazio gisa duen erabakitzeko eskubidea aldarrikatuko du ozen: gure esku dago!

Herri batek bere erabakiak hartzeko eskubidea izatea baino zer bait demokratikoagorik badago? Hontan euskal jendartearen gehiengoa bat gatzoz.

Hortaz, eta ariketa demokratiko berdinari jarraituz, jendartearen erdia baino gehiago osatzen dugun emakumeok ez genuke gure erabakiak, guk geuk, hartzeko eskubiderik izan beharko? Are gehiago erabaki horiek gure gorputzaren inguruko erabakiak direnean.

Espainiar Estatuko sektore-rik atzerakoieneak, katolikoek eta eskuindarrek, emakumeok gure gorputzaren gain dugun erabakitzeko eskubidea kendu eta gure erabakiak kontrolatu eta bideratu nahi dituzte; gure sexualitatea ugalketara mugatu, ama izatera behartu, orain arteko menpekotasun rol inposatua egonkortu ...

Abortuaren aldeko borroka estrategikoa izan da mugimendu feministarentzat. Abortua gure eskubidea da, eta borroka honetan tinko mantenduko gara!

Gauza bat argi izan behar dugu, sexu-genero diskriminazio estrukturalarekin bukatu eta emakumeak askeak izan arte, ez dago Euskal Herri askea lortzerik.

Eraso hauei erantzutea bezaraz, ez da soilik emakumeon kontua, herriaren ariketa kolektiboa izan beharko luke...

Hitzarmen kolektiboa berritu dute Tubacex-en

Hitzarmen Kolektiboa berritu dute Tubacex taldeko TTI eta Aceralava enpresetako langileek. LAB, ELA, CCOO eta UGTk sinatu zuten akordioa zuzendaritzarekin. STAT sindikatuak, aldiz, ez zuen sinatu, baldintzak nahikoak iruditzen ez zitzaizkiolako.



Eskualdeko lantegi garrantzitsuenetakoa Amurrioko Tubacex. Argazkia: aiaraldea.com

ERREDAKZIOA I

Tubacex taldeko TTI eta Aceralava enpresetako langileek, zuzendaritzak eta LAB, CCOO, ELA eta UGT sindikatuak adostutako akordioa berretsi zuten apirilaren 3an izandako bozketan. STAT sindikatuak akordiotik kanpo geratu zen zuzendaritzak eskainitako baldintzak nahikoak ez zirela uste zuelako.

laz, bost sindikatuak negoziazio plataforma bateratua osatu zuten lantegiotako hitzarmen kolektiboa adosteko, eta elkar lanean aritu izan dira negoziaketetan. Gauzak horrela, iragan urtean plataforma bateratuak aurreakordioa izenpetu zuen enpresako zuzendaritzarekin. Negoziazioak aurrera joan ahala, ordea, batasun hori desagertu zen; ordezkaritza handiena duen STAT sindikatuak zuzendaritzak eta gaintzeko sindikatuak egindako ituna ez sinatzea erabaki eta gero.

Ika-mika dezente izan eta gero,

Tubacex taldeko Aiaraldeko TTI eta Aceralava enpresek Hitzarmen Kolektiboa berretsi dute, urte eta erditik gorako negoziazio luzearen ondoren gehiengo sindikalak eta zuzendaritzak akordioa erdietsi eta langileek bozka bidez berretsi dute.

Asanblada eta bozketa

Apirilean zehar langileek izan zuten protagonismoa. Apirilaren 1ean ehunka langile bildu ziren Tubacex-ek Laudion duen lantegian. Asanbladan, ordezkarik sindikal bakoitzak zuzendaritzaren proposamenaren inguruan bere iritzia eman eta langileek eginiko galderak erantzun zituzten. Apirilaren 3an akordioa berretsi edo atzera botatzeko bozketa egin zen, langileen gehiengoa alde agertuz.

Hitzarmen berriak gehiengo sindikalaren nahiak asetu ditu, azken lan erreformek ezarritako malgu-

tasun neurrien aurrean mugak jarri dituelako, oraindik ere hainbat arlotan negoziazioa zabalik dagoen arren. Kontra agertu zen STAT sindikatuaren aburuz, ordea, akordioak malgutasuna ezarriko du eta lan baldintzak okerrera egitea suposatuko du.

Hitzarmenak 2016 urtera arteko iraupena izango du, eta denbora tarte horretan enpresako zuzendaritzak Laudion eta Saratxon dauden fabriketan 25 milioi euroko inbertsioak gauzatzeko konpromisoa izenpetu du. Era honetan, Kantabrian irekitako lantegi berriak sortutako ika-mikaren aurrean Aiaraldeko lantegien aldeko apustua adierazi nahi izan dute konpainiak agintariek. Soldaten inguruan, 2013tik 2016ra soldataz gain KPla %0.5 igotzeko konpromisoa hartu dute alde biek, baita lanpostu berriak sortzeko ere.

Greba mugagabea albo batera utzi dute Aiala Vidrioko langileek

ERREDAKZIOA I

Azkenean Aiala Vidrioko langileek ez diote greba mugagabeari ekingo. Igandean -apirilak 6- egindako asanbladan langileek bertan behera utzi zuten hurrengo egunetik aurrera greba mugagabea egiteko erabakia. Iragan asteko ostegunean hartu zuten erabaki hori, "enpresaren aldetik inolako mugimendurik ez zegoela ikusten zela-ko". Hala azaldu du enpresako LAB sindikatuko ordezkaria den Asier Barruetabeñak.

Lan-hitzarmen kolektiboaren aldeko borrokan murgilduak daude Aiala Vidrioko langileak, eta jada bi lanuzte egin dituzte zuzendaritzak ezarri nahi dituen lan-baldintzen aurka. Greba mugagabea zen hurrengo pausoa, baina ostiralean bilera egin zuten langileen ordezkariak eta zuzendaritzak, zeinetan azkenak planteamendu berri bat proposatu zuen. Ordezkariek gaintzeko langileei planteamendu berria helarazteko konpromisoa hartu eta hala egin zuten igandeko bileran. "Deialdia modu egokian egiteko bermerik egon ez zen arren", langileen gehiengoa bertaratu zela azpimarratu du Barruetabeñak. Bilera horretan erabaki zen greba bertan behera uztea eta enpresarekin negoziatzen jartzea.

Bermeak

Greba albo batera utzi duten arren, enpresaren aurrean berme batzuk dituztela azaldu du Barruetabeñak. Hala, greba amaierako dokumentu bat egingo dutela adierazi du, "orain arte lortutakoa ziurtatzeko". Honako hauek dira lortu dituzten gauzak: ordu gehiago ez sartzea, lan erreformari aurre egiteko puntu batzuk betetzea, kaleratzeko aitzakiak desaktibatzea eta kaleratze bidegabeen kasuetan 45 eguneko akordioa, besteak beste. Hala ere, Barruetabeñak gaineratu du horrek ez duela esan nahi horrekin konformatuko direnik, "Hau guztia luzerako doa", adierazi du.

3.722

LANGABETU ESKUALDEAN
MARTXOAN

- 1 LAUDIO 1.868 (%20.7)
- 2 AMURRIO 946 (%17.9)
- 3 AIARA 183 (%11.9)
- 4 ARRANKUDIAGA 50 (%9.7)
- 5 ARTZINIEGA 127 (%4.2)
- 6 OROZKO 106 (%7.9)
- 7 URDUÑA 352 (%16.3)
- 8 OKONDO 83 (%11.8)
- 9 ARAKALDO 7 (%8.6)

Erregistro Zibilaren pribatizazioa salatuko dute epaitegiko langileek

Gaur arratsaldean elkarretaratzeari egingo dute Amurrioko epaitegiko langileek Erregistro Zibilaren pribatizazioa salatzen. Izan ere, auzibidera jotzeagatik tasak ordaintzea, pentsioa jasotzeko urteroko bizi-agiria aurkezte... ekarriko ditu aldaketak. Baita jaiotza, ezkontza, dibortzio edo adopzioak inskribatzeagatik tasak ordaintzea ere.

Maiatzaren 1ean kalera ateratzeko deia egin dute sindikatuak

Langileen Nazioarteko Egunean eskubideen defentsan kalera ateratzeko deia luzatu diete sindikatuak herritarrei.

LABek eskualde mailako mobilizazioa egingo du egun horretan, 12:00etan Laudioko Lamuza Plazatik abiatuta.


ELA sindikatuak, bere aldetik, Bilbon egingo den mobilizaziora joateko deia zabalduko du.



_jendartea

Errenta aitorpenaren labirintoan orientatzeko aholkuak

Urtero bezala, ogasunaren aurrean kontuak aurkezteko epea ireki zaie urtean zehar dirua irabazi duten herritarrei. Aiaraldearrek Arabako edo Bizkaiko Foru Aldundian egin beharko dute errentaren aitorpena. Arabakoan zabalik dago epea. Bizkaikoan, aldiz, maiatzaren 5ean abiatuko da.



Hainbat modu daude errenta aitorpena egiteko. Argazkia: aiaraldea.com

ERREDAKZIOA I

Irtsi da errentaren aitorpena egiteko garaia. Araban bizi diren herritarrek zabalik dute jada aitorpena egiteko epea, eta bizkaitarrek maiatzaren 5etik aurrera ekin ahal izango diote. Bi epeak ekainean itxiko dira, hilaren 25 eta 30ean hurrenez hurren. Zerga hau pertsona fisiko guztiei dagokie. Hau da, berdin du zein den pertsona bakoitzaren egoera ekonomikoa eta berdin du zenbat irabazten duen (nahiz eta errentaren aitorpena egin behar izateko gutxiengo irabazi batzuk izan behar diren).

BEZa eta antzeko zeharkako zergekin alderatuta, errentarenak duen berezitasun nagusia honakoa da: herritar bakoitzaren ardura dela zerga bere buruari aplikatzea. Norbere buruari aplikatu behar izate horrek ilara luzeak sortzen ditu Aldundien bulegoetan, jendeak du-

dakizaten baititu aitorpena egitera-ko orduan, hainbat kontu eta faktore kontuan hartu behar direlako.

Faktore horien artean kokatzen dira murrizketak eta kenkariak. Biak ala biak baldintza batzuk zerrrendatzen dituzte. Baldintza horietakoren bat betez gero diru kopuru bat deskontatzen da. Jendartean topatu daitezkeen baldintza eta egoera posibleak aurre ikus-tea da helburua. Gaixo dagoen se-nide bat zaindu behar duen herri-tarrak inor zaindu behar ez duen batek baino gutxiago ordaindu de-zan, adibidez.

Errentaren aitorpena egiten duen herritarrek ez du, baina, oga-sunari zertan diru gehiago eman. Kasu batzuetan ogasuna bera da herritarrari diru kopuru bat itzul-tzen diona. Herritarrak aukera dau-kabere hileroko soldataren zatibat

“atxikituta” uzteko. Aitorpena egi-teko ordua iristen denean ogasu-nak “atxikitutako” diru hori zerga ordaintzeko nahikoa den aztertuko du. Nahikoa ez izatekotan herri-tarrak falta den dirua jarri behar-ko luke. Atxikitutako dirua zerga ordaintzeko behar den baino gutxiago bada, aldiz, soberan dagoen zatia itzuliko lioke ogasunak.

Aitorpena ez eginez gero

Aitorpena egiteaz ahaztu eta epez kanpo eginez gero interes batzuk ordaindu beharko lituzke herritarrek, baldin eta atxikituta-ko diruarekin zerga osoa ordaintze-rik ez balego.

%5eko interesa izango litzate-ke, eta denbora aurrera joan aha-la handituz joango litzateke. Oga-sunak ohar tarazpena bidaltzen die egoera horretan daudenei.

NOLA ORDAINDU GUTXIAGO

Murrizketak eta kenkariak antze-ko kontzeptuak dira. Euren arteko diferentzia honakoa da: murrizke-tak oinarritzko likidazio orokorraren ehunekoa gehitu baino lehen apli-katzen direla eta kenkariak, aldiz, ehunekoaren ostean. Baina biek ala biek gauza bera dakarte fun-tsean: errenta aitorpena egitera-ko orduan ogasunari diru gutxiago ordaindu behar izatea. Honako kasu hauetan aplikatzen da bakoitza:

MURRIZKETAK

Bikote ohiari edo seme-eei pentsio konpentsagarria emanez gero murrizketak jaso litezke. Baita pentsio planei ekarpenak eginez gero ere. Bestalde, familia bateko kideek (bi-kotea, adibidez) aitorpena egiten badute gutxiago ordaintzen dute.

KENKARIAK

Kenkari orokorra (autolikidazioa)
Guztiei aplikatzen zaie eta 1.375 eu-rokoa da.

Ondorengo ahaideena

Ahaide kopuruaren arabera diru bat deskontatzen da. Gero eta ahaide gehiago diru gehiago. 16 eta 6 urte baino gutxiago dituzten ahaideentzako bigarren deskontu bat dago.

Aurreko ahaideen kenkaria

Kenkarirako eskubidea eman behar dute.

Adinaren kenkaria

65 urte baino gehiago dituztenei aplikatzen zaie euren zerga oina-rria 3.5000 euro baino gutxiago-koa bada.

Ezintasun edo mendekotasunarena

Ezintasun maila %33koa edo han-diagoa bada edo 65 urte edo gehia-go dituen norbaitekin biziz gero.

Bizkaian bizi eta Araban lan eginez gero zer?

Norbera bizi den lekuan egin behar da aitorpena, kasu guztie-tan. Baina etxebizitzaz aldatu eta beste probintzia batera bizi-tze-ra joanez gero, urtean zehar egun gehiagotan erroldatua egon za-ren tokian egin beharko da aitor-pena.

Baina ez da nahikoa udal be-rrian erroldatzearekin; aldaketa baliozkoa izan dadin errolda ziur-tagiria diputazioaren bulegoetara eraman behar da.



Jonatan

Moreno Carranza

PARTE HARTZEAN ADITUA

_Argia

Hurbiltasuna

A skotan entzuten dugu hau giro poli-tikoetan, gehien bat herritarrek institu-zioei eskatuta. Hurbiltasuna behar-beharrezkoa da, noski. Gure gobernuak herritik hurbi-lago egotea.

Hurbiltasun horrek hainbat gauzen artean, jendea entzu-tean datza, haien beharrak eta egoera ulertzen saiatzean eta guzti horri erantzun bat ema-tean (beti ezin da aurrera era-man herritarrek eskatutakoa baina erantzuna behar da, gu-txienez).

Gero eta larriagoa da hurbil-tasun falta hori. Edo behintzat hurbiltasun faltaren susmoa. Gehienetan arazoak edo oke-rrak bilatzerakoan, aurrekoa-ri begiratzen diogu (kasu hone-tan politikoei edo instituzioei), baina, guk, pertsonok, zer mo-tako jokabidea daukagu gure ingurukoekin?

Kontuan izaten al ditugu?

Haienganako hurbiltasuna lan-tzen eta bilatzen al dugu? Ala indibidualizazio eta isolamendu pertsonalaren olatu erraldoi baten menpe bizi gara?

Zenbatetan pasatzen ditu-gu orduak ordenagailu, telefo-no edota beste aparatu tekno-logikoen aurrean gure burua “saretzen” ia ezezagunak dire-nekin, gure familia edo lagunei kasurik egin gabe?

Errekonozimenduaren bila-ketaren esklabo, gertutasuna baztertzen dugu eta benetan behar gaituztenei eta behar di-tugunak alde batera uzten di-tugu (politikagintzan izaten den moduan). Politikariak, institu-zioak eta abar herriaren isla ote dira?

Pentsalekura.

Ohiko galderak

Nork egin behar du errentaren aitorpena?

Arabian: Urtean 20.000 euro gordin baino gehiago irabazi duen orok. Alabaina, 12.000 eta 20.000 artean lortu duenak ere egin behar-ko du aitorpena, diru hori ordain-tzaile batetik baino gehiagotik jaso badu edo kontratua luzatu edo ber-ritu badiote.

Bizkaia: Kontratu bakarra izan-daurtean 12.000 baino gehiago eta kontratu bat baino gehiago izanda 20.000 baino gehiago irabazten duen orok.

Aitorpena bankuan ere egin daiteke?

Honako entitate laguntzaile hauetan egin daiteke aitorpena Araban: Santander Bankua, BBVA, Caixabank, Bankoa, Banco Popu-lar Español, Caja Rural de Nava-rra eta Tragobank S.A. Kasu ba-tzuetan bankuko bezeroa izatea da baldintza. Bizkaian ez da zer-tan bankuko bezero izan behar, eta honakoetan egin daiteke: BBK, Caja Laboral, Ipar Kutxa, Sabadell Gipuzcoano, BBVA, Santander eta Caixabank.

Zeintzuk dira aitorpena aurkezteko epeak?

Arabian epea ekainaren 25ean bukatzen da. Bizkaian, aldiz, mai-atzaren 5ean irekiko da eta ekai-naren 30ean itxi. Baina horre-taz gain badaude kontuan har-tu beharreko beste epe batzuk. Zuzenketak egiteko epea ekaina-ren 17an bukatzen da Bizkaian eta 9an Araban. Internet bidez egite-ko epea, aldiz, ekainaren 18an bu-katuko da Araban (aitorpenaren emaitza positiboa bada, bestela 25ean) eta Bizkaian 30ean.

San Prudentzioak: Danborraden eta barraskiloen sasoia

Bi dira apirilaren 28aren harira Aiaraldean hedatuak dauden ohiturak: sukaldariz jantzita danborra jotzen ateratzearena eta barraskiloak prestatzearena. Arabako patroia den Prudentzio Santua omentzeko egiten da, eta Aiara bezalako herrietan presentzia nabarmena du, jaiak ospatzen baitira bertan.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado

Ezin jakin zehazki zer urtetan hil zen Prudentzio. Bai, ordea, zein egunetan hil zen: apirilaren 28an. Horregatik ospatzen da San Prudentzio egun horretan, bere omenez.

Armentian -orain Gasteiz barruan dagoen herrixka batean- jaio eta hazi omen zen Prudentzio, IV. eta VI. mendeen artean kokatutako data zehaztu ezin batean. Eta VIII. mendetik aurrera Santu deitzen hasi zitzaion garaiko dokumentuetan, ustez hainbat mirari eta artatze magiko egin zituelako.

San Prudentzio eguna, baina, santu baten mirariekin baino bestelako elementuekin lotzen da gaur egun. Birekin, batik-bat: danborrekin eta barraskiloekin.

Danborrak

Apirilaren 28arekin identifikatzen den soinu bat egotekotan hori danborhotsena da. Sukaldariz jantzi eta danborra jotzen aritzeko ohitura nahiko errotua dago Araban. Danborrada, baina, ez da Araban soilik egiten den zerbait. Hor dago Donostiako danborrada, edota Espainiar estatuko beste desfileak (Aragoin edo Albaceten, esaterako). Kutsu militarra duen ekintza da danborrada, baina leku bakoitzean arrazoi ezberdinengatik ateratzen dira burrunba egitera.

Aiaraldean, baina, nahiko tradizio berria da danborradarena. Erreferentziarik beterranoenetarikoa Aiarako Etxaurren Ikastolan topatu daiteke. Bertan danborrada duela 25 urtetik, gutxienez, antolatzen dute, Cristina Gonzalez ikastolako irakaslearen arabera. Lehen Lehen Hezkuntzako haurrekin soilik antolatzen zuten desfilea, baina urteak aurrea joan ahala Haur Hezkuntzako umeak ere batzen hasi ziren. "Guztira? Ia 100", erantzun du Gonzalezek; "baina aurtengutxiago izango dira, San Prudentzio eguna zubiarekin batzen delako". Umeak gorabehera, ekimenak eskola mailan arrakasta beti izan duela azpimarratu du irakasleak.

Emakumeen parte hartzea

Laudion, aldiz, danborradaren giroa galtzen ari da. Hala adierazi du Rakatapla elkarteko kide den Ekiotz Bilboak. Rakatapla elkartea da desfilea antolatzeaz arduratzen dena.



Aiaraldeko hainbat txokotan ospatzen dira San Prudentzioak. Irudian, Amurrioko umeen danborrada. Argazkia: Aiaraldea.com

Danborradaren tradizioa nahiko berria da Aiaraldean. Erreferentziarik zaharrenek Etxaurren ikastolan topatu daiteke. Gutxienez 25 urte daramatzate desfilea antolatzen

Rakataplak baino lehenago herriko gastronomi txokoei osatutako talde batek antolatzen zuen. Danborradarako materialik ez eta Donostia aldera joaten ziren danborrak eta antzeko tresneria alokatuz. Txokoetan oinarritzen zen desfilea: gastronomi elkartek bakoitzak bere ikurrarekin desfilatzen zuten. Danborradan parte hartzeko aukera emakumeei eta, orohar, txokoetan ez zegoen jendeari zabaltzearen auzia mahai gainean jarri zenean, txokoei uko egin zioten antolaketari. Orduan hartu zuen Rakataplak herriko kaleak berriz danborhotsekin betetzearen ardura; eta ekimenak ematen ari zela dakien arren, Bilboak argi dauka Rakataplako asmoa "giroa berriz indartu bilakatea" dela. Hala, desfilean parte hartzea guztiz irekia dela azpimarratu du, eta horretarako elkarrekin kontaktuan jartzea baino ez dela egin behar. "Orain badaude 3-4 lagun berrigurrekin entseatzeko. Euren kabuz etorri ziren, entsegu batera, izena non eman behar zen galdetzen".

Amurrioren ere entsegu irekiak egiten dituzte danborrada prestatzeko. Asteazkenero izaten dira,

19:00etatik 20:00etara. Desfilea apirilaren 27an egingo da, Juan Urrutia Plazatik abiatuta. Ondoren, barraskilo dastaketa egongo da.

Eskualdeko desfilerik jendetsuena, baina, Audio Ikastolak antolatzen duena da. Ehunka ikasle, ikasle ohi zein guraso elkartzen dira musika beraren erritmoarekin danborrak astintzeko.

Barraskiloak

Barraskiloak dira San Prudentzio jaien bigarren elementu nagusia, baina hori ere ez omen da oso tradizio zaharra: Jose Miguel Baranbieran apaiz eta antropologoak 1930ean idatzi zuen arabera garai hartan barraskiloak jatearen ohitura ez baitzegoen oraindik Euskal Herrian hedatua.

Baina Rakataplakoek danborrada antolatzen hasi ziren urte berrean ekin zioten barraskiloen gastronomi lehiaketa antolatzeari, eta aurtengo dozenabata sukaldaririk parte hartuko dutela aurreikusten dute. Aiaraldeko beste herri batzuetan ere dastaketak egiten dituzte. Barraskilo jana, oro har, San Prudentzio egunari lotuta dago eskualdean. Aiarako jaien maskota den

Prontxi barraskiloa da horren adibide.

Kofradiari Arabako domina

Danborrak eta barraskiloak ez dira izango datorren apirilaren 28ko protagonista bakarrak. Laudio ikastolako San Roke Kofradiak ere izango du bere lekua. Arabako Domina emango baitio egun horretan Arabako Foru Aldundiak Kofradiari.

"Lau mendeetan zehar Arabako ohiturak mantentzen aritzeagatik" emango diote domina, Probintziako Jauregian egingo den ekitaldian. Javier de Andres diputatu nagusia izan da Kofradiaren lana saritzea proposatu duena, eta Diputatuen Kontseiluan onartu da proposamena.

Erabakiaren berri emateko zabaldu duten prentsa-oharrean azpimarratzen da Kofradia "bere tradizioei leial" mantendu dela urteetan zehar, eskualdeko "ikur" bilakatzearaino.

Barraskiloak egosi edo danborra jo, berbera da uniformea: apirilaren 28an ehunka aiaraldearrek jantziko dute amantala. Eta parte hartzea animatzen ez dena ere aterako da, kalean zer egosten ari den ikustera.

**AUTOBUSEN ORDUTEGIA / APIRILAK 26 LARUNBATA**

Autobus zerbitzua bazkal orduaren aurretik egingo diren ekitaldietarako

Luiaondo	Murga	Zuhatza	Menagarai	Lanteno	Arespalditza	Arespalditza	Jatetxea
11:00	11:10	11:20	11:30	11:35	11:50	14:15	14:25

Bazkariaren ondoren, autobusak joatean eginiko geldialdi berdinak egingo ditu

Arespalditza	Zuhatza	Menagarai	Lanteno	Murga	Luiaondo
18:10	18:20	18:30	18:40	19:00	19:10

Gaueko autobusak

Larunbata	Artziniega	Lanteno	Menagarai	Ibaguen	Arespalditza	Laudio	Luiaondo	Amurrio	Murga	Arespalditza
	20:30	20:40	20:45	20:55	21:00	21:20	21:30	21:40	21:50	22:00
Igandea	Arespalditza	Ibaguen	Menagarai	Lanteno	Artziniega	Arespalditza	Murga	Amurrio	Luiaondo	Laudio
	4:00	4:10	4:20	4:30	4:40	5:00	5:10	5:20	5:30	5:40
Igandea	Artziniega	Lanteno	Menagarai	Ibaguen	Arespalditza	Laudio	Luiaondo	Amurrio	Murga	Arespalditza
	20:30	20:40	20:45	20:55	21:00	21:20	21:30	21:40	21:50	22:00
Igandea	Arespalditza	Ibaguen	Menagarai	Lanteno	Artziniega	Arespalditza	Murga	Amurrio	Luiaondo	Laudio
	1:00	1:10	1:20	1:30	1:40	2:00	2:10	2:20	2:30	2:40

ERASO SEXISTARIK GABEKO JAI PAREKIDEEN ALDE
Jaiak denontzat dira.

Ez onartu inolako gehiegikeriarik. Indarkeria fisikoa, psikologikoa, zein sexuala izanez gero, larrialdietarako telefonoa den 112 erabili edota 900 840 111.

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!

Goza ezazu errespetuz
Errespetatu gozatzeko
gozatu errespetatuz

Maite nazazu ondo!
ZU ZARA AIARA

AMOR MISERICORDIOSO HEZKUNTZA
BEREZIRAKO ESKOLA-EGOITZA (MENAGARAI)

75 urte hezkuntza berezia lantzen Menagarai, Amor Misericordioso eskola-egoitzan. 75 urte atzera egiten badugu, eskola honetako lehenengo bizilagunak izan ziren Bilbo eta Larrondotik etorritako haur gutxi batzuk ikusiko ditugu. Eskola-egoitza 1939ko martxoaren 3an ireki zen, Pilar de Arratiak Amor Misericordioso Kongregazioari dohaintzan emandako etxe eta lur-eremuan. Beranduago, gerraoste gogorrean, haur gehiago iritsi ziren eta proiektuari eusteko zailtasunak sortu ziren, nahiz eta 50 urte beranduago berrindartu zen, behar bereziak zituzten lehenengo 5 neska-toak iritsi zirenean. Ordutik gaur arte, Menagarai-aren bihotzean kokatutako eskolak behar bereziak dituzten nesken autonomia hobetu eta autoestimua eta egonkortasun emozionala sustatzen egiten du lan. Gaur egun eskola-egoitzak 52 ikasle ditu.

**Apirilak 26, larunbata**

9:30 "Prontxi Ibilaldia" II. mendi martxa
12:30 Amor Misericordioso eskola, 2014ko pregoilariaren agurra
• Adar jotzea
• Kartel txapelketako irabazleari saria ematea
• Añes herria arduratuko da txupinazo ofizialaz. Jarraian beste 23 herrik botako dute suiziri bana
• Ohorezko aureskua
• Jai parekideen aldeko mezua
14:30 Herri bazkaria, norberak bere bazkaria eramango du eta Udalak ardoa eta ura eskainiko du
16:30 Jesus Isasiren Oroimenezko XXXIV. Txirrindulari Sari Nagusia (Kadeteak)
17:00-19:00 Tailerrak material birziklatuekin
18:00 – 20:00 Bolo jaurtiketa Kexaan
18:30 Herri kirolak: 250 perimetroko kana bertikala
20:00 Txorizo jan herrikoia (0.50 €)
22:00 Berbena Trikizio taldearekin
02:30 Kontzertua Zein taldearekin

Apirilak 27, igandea

11:00 – 13:00 Bolo jaurtiketa Kexaan
11:00 - 14:00 Umeentzako parkea
12:00 Gure nagusien aldeko meza
12:00 Eskutsiko Ahotsak, Itzalde Abesbatza eta Mendi artean kontzertua
14:30 Nagusien XIV. Eguna ospatzeko bazkaria
Eta dantzaldia Iñaki Otegirekin
17:00-19:00 Tailerrak material birziklatuekin
18:00 Herri kirolen herri arteko lehiaketa
17:00 – 20:00 Umeentzako parkea
19:30 – 20:00 Bolo jaurtiketa, emakumezkoen kategorian Luiaondon
22:00 Berbena Tximeleta taldearekin

Apirilak 28, astelehena.
San Prudentzio

12:00 San Prudentzioren ohorezko meza
13:00 Umeen danborrada
16:30 – 18:30 Zirko tailerra
19:00 Erromeria Patxi eta Konpaniarekin
20:00 Odoloste jan herrikoia (1 €)
Eta Prontxi agurta



_kultura

Dolumin Barikua: 1890etik baserri eta abeltzainen topaleku

Tradizio handikoa da Laudioko Dolumin Barikuko azoka. Duela 124 urte ospatu zen lehen aldiz eta orduz geroztik kontaezin ahala leku, egitarau, eta parte hartzaile aldaketa izan ditu. Baina aldaketa horiek ez dira oztopo izan festa herrian errotu dadin.

ERREDAKZIOA | Aitor Martinez Ibarrola

Ostiral honetan, hilaren 11n, Dolumin Barikua ospatuko da Laudion. Laudiarren egutegian seinatutako eguna da ostiralekoa. Hain dago errotua, ezen hainbat eskolatan jai izaten baitute. Aurten berrikuntza batekin helduko da: animalien ongizatea bermatzeko neurri berrien ezarpena, 2014ko lege berriak hala eskatuta. Gainera horri gehitu behar zaio Araban urtean ospatzen den lehen azoka dela.

Beste behin ere, azokaren antolakuntzaz Aberedunak elkarte arduratuko da. 1992. urtera arte Laudioko Udalaren esku egon zen betebeharra. Azokak beheranzko joera zuela ikusita sortu berria zen Laudioko Abeltzainen Elkarte-ri eskatu zioten prestakuntza bere gain hartzea. Une horretatik aurrera hasi zen berriz ere gora egiten.

Juxto Urkijo elkarteko kideak adierazitakoaren arabera, hartutako neurri garrantzitsuenaz aurretik gai gehiegi hartzen zituen azoka erakusketan bilakatzea izan zen. Arrakasta ikusita inguruko herriek berdina egitea erabaki zutela adierazi du Urkijok.

Erakusketa bereziki abereetara zuzendua egon zen lehenengo urteetan. Nabarienak behiak eta zaldiak dira. Osagarri gisa, eta meentzat bereziki zuzenduak, txerriak, oiloak eta hegazti exotikoak ere egoten dira.

Nekazaritza makineria ikusten da. Edizioz edizio irabazitako hel-dutasuna medio, pixkanaka beste berrikuntza batzuk ezarri dituzte: zaldien ferraketen su bidezko antzinako prozeduraren erakusketa, txahal errekoa, hanburgesak dastatzeko aukera... denak 50 postu baino gehiagotan banatuak.

Taloak saltzeko hiru txosna baliatzen dira eta egunean zehar idi probak ikusteko aukera egoten da. Berrikuntzek jende gehiago erakartzea dute xede; Urkijok adierazitakoaren arabera, aski bete duten helburua, gainera.

Laudioko abeltzain asko inplikatzeko dira Dolumin Barikuko azokan. Haiek dute, antolatzaileen arabera, lehentasuna, nahiz eta beste herri batzuetakoei ere gonbidapena luzatzen zaien. Udalak ez die postu jartzeagatik kobratzen. Azokaren filosofia Laudio eta Aiaraldeko ekoizleen produktuentzako espazio bat

izatea izan da beti. Eskaera asko albo batera uzten dira, tokiko ekoiz-



Abere-azoka Arraño auzoko igoeran ospatzen den aspaldi. Argazkia: Juan Carlos Navarro

1890eko maiatzaren 7an ospatu zen lehenbiziko aldiz, Urizar alkatea eta Urkixo markesa lekuko zirela. 1957an udalak hartu zuen azoka antolatzeko ardura, eta 1968an Larrea koadrilak

leak ez direlako. Hala ere, antolatzaileek adierazitakoaren arabera, erakusteko lekua da eta ez salmentarako gunea.

Aurten, azkeneko urtetan bezala, bigunetan banatuko da: produktuen postuak Herriko Plazan jarriko dira eta abereenak Udal Lanbide Heziketa Eskola aurreko apartokalekuan.

124 urte dituen ospakizuna

Aurten Dolumin Barikuko azokak 124 urte beteko ditu, Juan Carlos Navarro historiazalearen arabera, 1890eko maiatzaren 7an antolatuz aurreneko aldiz. Francisco Urizar alkatea eta Urkixo markesa lekuko zirela. Arbolazainak eta abeltzainak saritzen zituzten, ordu hartan, egindako lanagatik. Bate-tik, Laudiokoak. Eta, bestetik, Murgakoak. Zezenak, behiak, arbolak, idiak... arraza eta motaren arabera aztertzen zituzten.

Hasierako lehiaketetan, Laudioko lehen sektorearen artean sari gehiago banatzen ziren. Hamarkadek aurrera egin ahala, ordea, nola sari kopurua hala banaketa aldatu egin da.

Lehen, adibidez, fruta arbolen kasuan, esaterako, laudioarren-tzat 500 pezetako 12 sari zeuden. Murgakoentzat, berriz, 250 pezetako zazpi. Urteek aurrera egin ahala, ordea, azokako parte hartzaileak eta eremua ere aldatu dira. 1950etik 1953ra, esaterako, antzinako Urkixo markesaren kalean

egin zen. 1954an, berriz, Maestro Elorzara mugitu zuten azoka, eta 1958tik aurrera, Jose Matia kalera. 1957an antolatzaileak ere aldatu ziren, udalak hartu baitzuen ospakizuna prestatzeko ardura, Arabako Foru Aldundiaren eta banketxe batzuen laguntzarekin. 1968tik aurrera, berriz, Larrea koadrilak hartu zuen bere gain egunaren inguruko prestatketa eta kudeaketa.

Dolumin Barikuan idi probak egiteko ohitura aspaldikoa da Laudion. Arratsaldean jende mordoak biltzen da Arraño, txapelketa ikusteko. Hala ere, ez da urtero egin den jarduera bat; 1968ra arte, askotan bertan behera geratu izan da lehiaketa, sukar aftosoa zela eta idiak garraiatzeko zailtasunak zituztelako. Azkeneko urteetan, Zumalakarregi etorbidean, Herriko plazan eta Aldai plazan egin dira azokak

Iraganaren oroitzapena

Industrializazioarekin lehenengo sektorearen ahultzea etorri zen. Laudio nekazaritza tradizio handikoa herria da. Azoka testuinguru horretan sortu zen, Araban aitzindari. Urtetan, sektorearen garrantziaren galerarekin ospakizuna iragan horren oroitzapenerako aukera paregabea bilakatu da.

Tradizio horren baitan jaio ziren idi-probak. Sortzaileen artean Santa Luziako Goiko, Larrañoko Magdalena, Larrako Aranguren eta Larrabaleko Goizabal baserriak nabarmentzen dira.



Inma

Roiz

IDAZLEA

_Kamerinoa

Artearen alde

Arte ederrik gabeko bizitzan pentsatze hutsak gaixotu egi-ten nau. Nire ustez, arterik gabeko mundu batek — arte horren adierazpidea edozein dela ere — ez du ezer-tarako balio.

Bizitzak, esaterako, ez luke zentzurik musikarik gabe, notak, ahotsak eta musika-tresnak nahasten dakiten emakume eta gizon treberik gabe. Museorik, antzokirik edo zinemarik gabeko hiria?

Pentsaezina da hori. Eta libururik gabe... horiek gabe bai ezingo nintzatekeela bizi.

Beste norbaitek irakur ditzan idatzitako hitzez ari naiz. Haiei esker beste mundu batzuk ezagutu ditut, beste harreman batzuk bizi, ametsak bete...

Arteak, askotarikoak, gure eguneroko bizitzan sartzen dira, isilean baina modu eten-gabean, eta toki askotan aurki ditzakegu haien zantzuak: pintzel-ukitu batean, gustuko abestiaren notaren atzean, poema batean edo espaloia- ren tokirik onenean dagoen eskulturari.

Hala eta guztiz ere, artea- ren aukerak mugatu egiten ditugu, baliabideak murriztu, neurri gabe pirateatu... Eta askotan inertzia hutsa- gatik jokatzeko dugu horrela, esku artean dugunaz jabetze- ko eta gozatzeko asti nahiko- rik hartu gabe.

Baina, esan bezala, ezinez- koa da arterik gabe bizitzea. Edertasuna poemetako le- rroetan dago, koadroetako pintzelkadetan eta musika- ren soinueetan, eta hura gabe ezin izango genuke bizi.



_kultura

_kultur leihoa



Txetxu Urkijo
ZINEMA

Her

Zuzendaria: Spike Jonze
Gidoilaria: Spike Jonze
Aktoreak: Joaquin Phoenix, Scarlett Johansson, Amy Adams...
Herrialdea: AEB
Iraupena: 126 minutu

Pelikulak kontatzen digun istorioa etorkizun hurbilean kokatzen da. Bertan, *Theodore* besteendako gutunak idazten ditu. Hala-ko batean, sistema eragile berri bat erosiko du, *Samantha* alegia. *Samantha Theodore* gura guztiak asebetetzeko sortua izan da. Egunak joan egunak etorri, orde, maiteminduko dira.

Horren abiapuntu orijinala duen lan honen erantzulerik nagusia **Spike Jonze** zinemagile amerikarra dugu. Egia da gutxitan jarri dela kameraren atzealdean, hala ere egin duen guztietan erabat desberdinak diren produktuak zertze-ko izan da: "*Cómo Ser John Malkovich*", "*Adaptation (El ladrón de orquídeas)*", "*Donde Viven Los Monstruos*" eta "*Her*" ditugu. Azken pelikula honen gidoiari esker gainera Oscar saria poltsikoratu zuen.

Antzezpenari dagokion arloan, zelan ez, Joaquin Phoenixen jarduna nabarmendu behar da. Phoenixek karakterizazio ederra burutzen du, egin ohi duen bezalaxe eta, pelikularen zama osoa bere gain hartuz, ikuslearen arreta bereganatzeko gai da. Zine aretotik irtetean, buruan etengabe ideia bat ibili nuen: baliteke artificio hutsa dena, hau da pantailan agertzen zaiguna, egiazko bilakatzea? Burutazio kezagarria da, baina ideia horien aurrean inork kokatu behar gaitu eta horretarako dugu, nola ez, Spike Jonze jauna.



Maiatzaren 7tik 18ra izango dira Urduñako Otxomaioak

ERREDAKZIOA | Eunat Molinuevo

Hainbat elkarte zein eragilez osatutako Jai Batzordeak egitarau oparoa prestatu du aurten. Txupinazoa aste bitartean izango da, 7an (asteazkena) 19:00etan, baina maiatzaren lehenengo asteburuan giroa berotzen joango dira urduñarrak. Festak hasi aurreko egunetan, esaterako, gazteen txirrindularitza lasterketa korrituko da, eta, hilaren 3an, tokiko produktueko ekologikoen feria egingo da, lehenengoz.

Egitaraua

Otxomaio egunean, meza nagusia z gain, buruhandiak, Santa Zezilia bandaren kontzertua, kale-animazioa eta beste hainbat ekintza egingo dira. Urtero lege, haurren eguna 9an izango da, eta egun horretan ere jokatuko dira profesionalen esku-pilota partidak. Biharamunean, zezenketa egongo da arratsaldean, eta Gazte Asanbladak antolatutako kontzertuak gauean. Igandean, bakailao txapelketa hartuko du Urduñak, eta etxeko txikientzako mendi-ibilaldia egongo da.

Bigarren asteburuari dagokionez, herri-bazkaria larunbatean izango da, 17an, bai eta BTT ibilaldia ere gaueko 22:30ean. Jaiak 18an amaituko dira, eta 21:30ean erreko da Bihotza.



laz ospatu zuten lehen aldiz Atsolorra ospakizuna. Argazkia: Aiaraldea.com

Atsolorra ospatuko dute, jaio berriei ongietorria egiteko

ERREDAKZIOA |

Atsolorra deritzon ospakizuna egingo du Adi Emakume taldeak datorren apirilaren 12an, Kultur Etxean. Jai hori antolatzen duten bigarren aldia da, iaz ere egin baitzuten. "Lehen edizio hori hain izan zen arrakastatsua ezen bigarrena antolatzea erabaki dugula", azaldu dute emakume taldeko kideek. Herriko jaioberriei ongi etorria egitea. Hori da Atsolorraren fun-

tsa. Gurasoak elkar ezagutzea eta haurrak elkarrekin kontaktuan egotea da helburua, antolatzailerik adierazi dutenez. Aitzine-tik datorren ospakizuna dela ere gaineratu dute. "Erditu eta gutxira amari opariak eramateko ohitura zegoen, eta honek merienda bat antolatzen zuen gero bere etxean, erditetik indarberritzen zenean". Ohitura horien bidez "zaintza eta

babes konpromiso komunak" sortzen zirela azaldu dute Adi-koek. "Haurrak komunitate osoarenak izatera igarotzen ziren". Emakume taldeko kideek ziurtatu dute ohitura hori Euskal Herri osoan zehar zabaldua zegoela duela hamarkada gutxira arte.

Omenaldia

Lehen erditzeak etxean egiten ziren eta erditze-laguntzaile moduan gehienbat emakumeak zeuden, Adi-ko kideen hitzetan. Hala, aurten erditze-laguntzaile moduan aritutako Urduñako emakume bat omendu nahi izan dute: Juana Baltza. 1880. urtean jaio zen Baltza, eta herriko emagina izan zen urte luzez. "Batzue-tan berak eramaten zituen jaioberriak batailatzen, eta auzokideei laguntzeko abilezia eta bere eskuak soilik baliatuta bide askotan barrena aritu zen".

Baltza "instituzio publiko bat" izatera iritsi zen, Adi-koen arabera. Ospitalea eta anestesia oso urrun zeuden garaia zen, eta emaginen esperientziaren bidez lortutako ezagutzak beharrezkoak ziren, eta emaginen esperientziaren bidez lortutako ezagutzak beharrezkoak ziren. "Juana eguneko 24 orduetan zegoen prest, medikuntzan aritzen ziren beste batzuen soldata eta errekonozimendua jaso gabe".

+info: bideoa:
lazko Atxolorrari buruzko bideoa.



Luis Vil amurriarra bere lehen filma luzea prestatzen ari da, "Escisión" izenekoa



Bere lehen filma luzea izango dena ari da prestatzen Luis Vil musika eta zinemagile amurriarra: "Escisión".

Filma "drama psikologiko" moduan definitu du Vilek, eta gidoia idazten lau hilabete daramatzala

gaineratu du. "Momentu honetan castingean eta lokalizazioen bilaketan murgildurik nabil". Filmaren grabaketarekin hasteko, baina, negura arte itxarotea du aurreikusia, filmean "atmosfera hotz bat" lortu nahi duelako.

Aiaraldea Irratiko Klioren basoa historia irratsaioak bere 50. saioa egin du

Bere 50. saioa egin du Aiaraldea Irratiak ekoizten duen Klioren Basoa historia irratsaioak. Irratia sortu zenetik dabilen irratsaioa da, eta Euskal Herri zein mundu mailako historiaren pasartean ditu hizpide. Ordu erdiko iraupena dauka eta Uhinak Irratiaren frekuentzian (96.5 Fman) entzun daiteke asteartero 19:30tan, igandero 16:00tan eta astelehenenero 2:00etan.



Mateo Pagazaurtundua
IRAKASLEA

_Lurpetik

Iturriko ura bai!

Laudion, bizpahiru mila biztanle inguru izango ziren garaian, Sillerok, horrela zuen ezizena, tren geltokitik gertu taberna zuen. Bere bezero-txikiteroen umorea, Nerbioi ibaiaren antzean, adar-jotzearen arabera mailaz igo edo jaitsiz, gaur egun burtsan gertatzen den bezala, fluktuatuz mugitzen zen.

Egunero ibilbide errepikakor etengabea, ardozale talde txo batek zirkuituaren laugarren itzulian errepostajerako geldidunea Sillero-ren tabernan egin zuen. Tabernariak, ohiturari fidel jarraituz, basoak ardoz bete eta gero, buelta eman zuen pitxarra bere apalean txukun txukun lekutzeko. Ia argiaren abiaduran kuadrillako batek zapaburu bat sartu zuen bere basoan.

Ekintzak ez zuen berbaldian etenik sortu. Hara non, kuadrillako batek, amorruz...

-Begitu egizue zer dagoen nire basoan! Zapaburu bat! - Hura zaratuak, oihera eta zalaparta. Denak haserre plantak Sillero-ri kontu eske.

-Ez dago fundamenturik! Ardoari ura bota eta bota zabiltza ezetz esan arren, lotsabako hori! - Sillero umore txarrez, zarataka alaba deitu zuen.

-Isabel zatoz hona! - Mila bider esan dizut erreko urik ez botatzeko! Horretarako bakar-bakarrik iturriko ura erabiltzeko!

Bukaeran, aipatzeak merezi ez duen txorigorriren batzuk tartekatutak joan ziren, ahozko hizkeraren bizigarri eta heziketa zaharrekoentzako mingarri. Hartan, kuadrillak debalde buzti zuen zintzurra.

kirola

Nerbioi Rugby taldea: Barbaroen kirola, ume eta gazteek jokatua

“Zaldunek jokatzen duten barbaroen kirola”. Hori da errugbiari ematen zaion definizioa. Amurrion, baina, definizio hori moldatu egin behar da: “Ume eta gazteek jokatzen duten barbaroen kirola”. Nerboi Rugby taldeak kirol horren filosofia transmititu nahi die taldearen entrenamenduetara bertaratzen diren haur eta gazteei, euskaraz.

ERREDAKZIOA | Aimar Gutierrez

AmurriokoRefor-aherriko futbolaren erreferente den lekua bada ere azken urteetan kirol berri bat hasi da indarra hartzen, errugbia. Guztiz egokia ez den instalazio batean eta futbolaren itzal luzearen azpian bada ere, geroz eta jende gehiago doa gerturatzen eskualdean hain ezezaguna den kirol honetara. Ilusioa eta aurrera jarraitzeko grina ez zaie falta Nerbioi Errugbi Taldeko kideei eta entrenamenduetan orotan jartzen duten grina ikusita etorkizun oparoa duen kirola dela dirudi.

Nerbioi Errugbi Elkartea duela hiru urte sortu zen, errugbizale batzuen eskutik. Lagun talde horrek errugbiak transmititzen duen filosofia eskualdera hedatzeko grina izan zuen beti, haiek bezala beste askok kirol honetaz disfruta zezaten. Behingoz errugbi taldeak sortzerantz animatu zirenean beldurra zen nagusi, ez zuten haien deialdiak jende asko erakarriko zuenik espero. 10 bat gazte bildu ziren lehenengo entrenamendu haieiara, entrenatzaile talde bihurtu berri zen lagun taldea pozik, espero baino gazte gehiago batzea lortu baitzuten. Gaur egun 25 gazte txo dira,

sub-8 eta sub-14 kategoria bitartekoak.

Larunbatero entrenatzen dute Refor-eko futbol zelaia zahar batean inprobisaturiko errugbi ate biren artean, hala ere momentuz daukaten apurrarekin konformatzen dira.

Nagusiagoek-Sub 14 kategoriako jokalariek- asteazkenetan ere entrenatzen dute. Izan ere, hauek liga batean parte hartzen dute eta horrek exijentzia maila altuagoa eskatzen du.

Geroz eta gehiago

Euskal Herrian geroz eta ezagunagoa den kirola da errugbia. Esan bezala, Bizkaian daude talde indartsuenak, Getxo eta Gernika adibidez bai eta azken aldian asko indartu diren Durango eta Elorrioko taldeak. Amurrioko errugbi taldeko gaztetxoek Bizkaiko taldeekin jokatzen dute liga, Santanderreko bi talde eta Logroñoko beste talde batekin batera.

Sub 14 kategoriako gazteek,

ordea, jokalaria falta dela medio Gernikakoekin batera jolasten dituzte partidak.

Jokoaren filosofia

Nerbioi Errugbi Elkarteko helburua, ordea, ez da errugbi talde guztien gainera gailenduko den talde lehiakor eta menperagaitz bat osatzea, haurrei errugbiaren filosofia irakastea baizik, hots, errugbi eskola bat osatzea; errugbia kontaktu handiko kirola bada ere kiroltasun eta diziplina handiko jarduna baita.

Haurrek hasiera-hasieratik ikasten dute zelaian nola egon behar diren, aurkariak zein arbitroa nola tratatu behar dituzten bai eta laguntasuna zein garrantzitsua den ere. Errugbian garrantzi gutxi dauka oso azkarra izateak, “2 aurkari sailhestea lor dezakezu baina aurrean 15 aurkari sailheste behar dituzunean kide bat alboan izateak zein garrantzitsua den baloratu egiten da”, azaldu du Jonek.

Talde lana askolantzen du errugbiak: “Baina horren gainera errespetua dago eta hori oso barneratuta daukate jokalariek; beti egongo da norbait garbi jokatzen ez

duena baina kasu horretan taldeak berak esango dio jokalaria horri kirolez okertu egin dela, garbitasunez jokatzea funtsezkoa baita”.

Ingalaterran errugbia zintzoek jolastutako zitalen kirola dela diote. Errealitateak men egiten dio esaldi horri. Izan ere, normalean errugbi partida bat 40 minutuko bi zatitan banatzen da, baina kirol honen zintzotasuna jarraituz bada 3. denbora deritzon azken zati bat non bi aurkariak bildu eta elkarrekin partidaren nondik norakoak komentatzen dituzten janari zein edari artean. Talde amurriokarrak ere errugbiaren tradizio hau jarraitu eta “3. denborak” antolatzen ditu bere aurkariekin batera, bai eta hainbat entrenamenduren ostean ere.

Aurreiritzi askoren azpian adiskidetasuna eta errespetua oinarri dituen kirol garbi bat dago, taldeen arteko lehiak gailendu eta edonorentzat tokia daukan kirola baita, “probatu nahi duen edonork gerturatzea baino ez du. Errugbiaren ateak zabalik daude, beti egon diren bezala”.

FUTBOLA:

C.D Orduñak haur eta benjaminentzat txapelketak antolatuko ditu

ERREDAKZIOA | Aimar Gutierrez

Aste Santuko liga geldialdia aprobetxatuz C.D. Orduña futbol klubak haur eta benjamin kategoriako torneoak antolatu ditu Orduñako udal futbol zelaian: Orduña Hiriko I haur txapelketa eta Orduña Hiriko II benjamin txapelketa.

Haur txapelketa apirilaren 19an egingo da eta bertan lau futbol taldek hartuko dute parte: C.D. Orduñak (Bizkaia), C.D. Arratiak (Bizkaia), Ik. Larramendik (Bizkaia) eta Kaskagorri F.T.-k (Araba). Partidak goizeko 9:30ean hasiko dira eta goiz osoan zehar luzatuko dira. Sei partida jokatuko dira guztira.

Benjamin txapelketa, aste bat beranduago, apirilaren 26an, izango da. Iaz egin zen lehengo aldiz C.D. Basconia-ren garaipenarekin, eta aurtengo bere bigarren edizioa izango da.

Haur kategoriako txapelketak jarraitzen duen formatu berdina izango du; partidak 9:30ean hasiko dira eta lau talde izango dira bertan: C.D. Orduña (Bizkaia), S.D. Moraza (Bizkaia), S.D. Begoña (Bizkaia) eta Atxulaur K.T. (Bizkaia).

C.D. Laudio ere, urtero bezala, Aste Santuko txapelketa egingo du.

Bizkaiko kopa

O-1 irabazi zuen Orduñako Futbol Klubeko emakumezkoen taldeak pasa den martxoaren 30ean Derioko taldearen aurka. Klubetik adierazi dute lehia handiko partida izan zela. Lehenengo zatian bi taldeak oso berdinduak zeuden, baina 21. minutuan urduñarrek gola sartzea lortu zuten. Partidaren bigarren zatian ere lehia asko egon zen eta Derioko jokalariek behin baino gehiagotan saiatu ziren gola sartzen, baina ez zuten lortu.

Bizkaiko Koparen norgehiagokan bigarren postuan dago Orduñako Futbol Kluba. 24 puntu lortu ditu orain arte, eta lehen postuan dagoen taldeak, Arizek, 27 ditu. 3 puntuko diferentzia dago, beraz, bi taldeen artean.

Hurrengo partida apirilaren 13an izango dute. Santxosoloko zelaian izango da, eta “Enkarterriko neska” izeneko taldearen aurka jokatuko dute. Guztira 5 partida jokatzea falta zaie, eta Bizkaiko kopa irabazi dezakete, bost partida horietan Arizek baino puntu bat gehiago lortuz gero.

Azken partida maiatzaren 25ean izango da. Berrio- Otxoaren aurka lehiatuko dira, Orduñako zelaian. Orduña Futbol Klubetik adierazi dute taldeak “bere historiako emaitzarik onenetarikoak” ari dela lortzen.

Orain arte jokatutako hamahiru partidetan 22 gol sartu dituzte urduñarrek, eta 9 gol baino ez dizkiete sartu.



ZERBITZUAK

- Fisioterapia funtzionala
- Osteopatia
- Masaje terapeutikoa
- Bendaje funtzionala eta Kinesiotape
- Dranaje linfatikoa
- Zerbitzua etxez-etxe
- Elikaduraren inguruko jarraibideak

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

ZERBITZUA EUSKARAZ

%15^{eko}

deskontua

ZERBITZU GUZTIETAN

IRAGARKI HAU AURKEZTEN DUTEN PERTSONENTZAT

* Eskaintza baldagarria Maiatzaren 7ra arte

Kontsulta: Maestro Elorza 1 **LAUDIO** (tren geltokitik hurbil) Tlfnoa: 946 561 951 / **605 446 628**



_kirola

TXIRRINDULARITZA: San Prudentzioko Sari Nagusiaren 53. edizioa egingo dute

San Prudentzioko Gazte Mailako Sari Nagusiaren 53. edizioa antolatu du Laudioar Txirrindulari Elkar-teak. Apirilaren 13an (igandea) izango da lasterketa. 10:30ean hasiko da Zumalakarregi kalean, eta leku berean bukatuko da proba. Parte-hartzaileek 60 kilometro egin beharko dituzte.

MENDIA: Urkullu mendira ibilaldia antolatu du Goikogane mendi taldeak

Laudioko Goikogane mendi-taldeak ibilaldia antolatu du Nafarroako Ipar-Hegoalderara. Apirilaren 26an abiatuko dira, busez; eta hurrengo egunean itzuliko dira. Izena emateko info@goikogane.com helbidera mezu bat bidali behar da. Irteera guztiak webgunean ikus litezke.



MENDI LASTERKETA: Pello Moreno eta Asier Isusi garaile Urnietako mendi-lasterketan

Pello Moreno laudioarra eta Asier Isusi orozkoarra garaile atera dira Urnietako mendi-lasterketako Junior kategorian. Morenok lehen postua lortu du eta Isusik, aldiz, bigarrena. Moreno Euskal Selekzioarekin egon zen iaz Espainiako mendi-lasterketako txapelketan parte hartzen.



Iñaki

Isasi
TXIRRINDULARIA

_Helmugari so

Erlatiboa

Txirrindularitza kirol-lik gogorrenetarikoa dela dio askotan jendeak. Nik ezetz diot.

Hain gustura egin dudana ezin du hain gogorra izan. Baina sakonki pentsatzen jarrita, benetan kirol zaila dela konturatzen naiz. Bihotza topera, hanketan min handia, arriskua jaitsieratan, erorketak, askotan eguraldiaren ondorioz, eskuak eta oinak izoztuak, euria, elurra, haizea, beroa, 21 egunetako lasterketa bukaezinak, batzuetan 30.000km urtero... Hala ere, niretzako, jende askoren lana baino errazagoa da. Goizeko bostetan jaikitzea edo gaua lantegian ematea baino errazagoa. Argi dago gustura egiten dituzun gauzak errazagoak egiten direla. Horregatik, esfortzua oso erlatiboa dela esatera ausartuko nintzateke. Faktore askak parte hartzen baitute bakoitzak esfortzuarekiko duen sentsazioan. Egiten hari zarena gustuko duzun, esfortzuak duen saria, edo bizitzako eta eguneroko zein beste aspektuekin alderatzen duzun... Guzti honek esfortzua erlatibizatzen du. Garunak, kanpotik informazio guztia jaso ondoren erabakitzen du zer esfortzu maila egiten ari zaren. Burura datorkit Espainiako itzuli batean, 2. mailako mendate bat igotzen, nola tropelaren aurrealdean egonda eta ingurura begiratzean, itzuli horretako gizon indartsuenak ahoa itxita baino ez nituela ikusten. Haien artean egonda oso gaizki nindoala erabaki zuen nire garunak. Tropeleko atzeko aldera joateko erabakia ona izan zen. Han zihoazen, asko eta asko sufritzen, esprinterrak. Haien artean egonda hanketako mina desagertu egin zen.



Gazteak Ruperto Urkijo klubak Laudioako Larrañoko bolatokian duen bolatokian entrenatzen. Argazkia: aiaraldea.com

Hasi da bola-jokoaren udaberriko denboraldia Aiaraldean

ERREDAKZIOA | Gentza Garcia Mendieta

Bola-joko txapelketak indarrez helduko dira gure eskualdera. Lehenengo hitzordua, apirilaren 11n izango da, San Rokeko bolatokiak hartuko duen Sari Handian, Dolumin Barikuaren baitan. 11:00etatik aurrera hainbat kategoria eta adi-

neko jokalarik jaurtiko dute bola.

Atsedenerako denborarik ez eta Gardeako bolatokiak hartuko du lekukoa hurrengo bi egunetan; 12-13ko asteburuan, alegia. Probin-tzia osoko arituenak elkartuko ditu txapelketak. Ostean, San Roke, Ke-

xaa, Luiaondo eta Tertangak hartuko dute kirolari etenik ez emateko ardura udaberri oraindik gazte hotzetan zehar.

Klubeko kidea den Juan Antonio Gaya Hernandezek bola-jokoak gure eskualdean daukan presen-

tzia gogorarazteko aukera ez du galdu nahi izan. "Bola-jokoa Aiaraldeko kirola da, pilota baino lehenago jokatzen hasi zena", adierazi du Gayak, nahiz eta herri askotan zaltetazuna urteen poderioz txikitzen joan dela aitortu duen.

"Oso-oso antzinako jolasa" da eta beste inon topatu ezina den modalitatea dauka eskualdean, Gayaren hitzetan. Akaso Amorebieta-koarekin parekatu daitekeen modalitatea da, haren "deformazio" gisa hartu daitekeena. Arau nagusia da bolo handia botatzek jaurtitzailari puntu bat ematen diola, txikia botatzek lau ematen dizkion bitartean. Bolak hondoko txapa jo behar du betiere, jokaldia baliozkoa izan dadin nahitaezkoa baita.

Galduz joan den kirola

"Lehen Laudion 10-12 bolatoki egon zitezkeen, baina orain 4 baino ez", aitortu du Gayak. Santa Luzian, Aretan edota Gardean guztiz ohikoa zen bolatoki ugari ikustea, orain bakararra mantentzen den arren. Garbi dauka Gayak, halere, zein den bere gustukoena, denboraren jarioak berak itxi ezin izan duen bakarrenetakoa: "San Joane-ko baselizan dagoena da onena". Ukaezina da halere Aiaraldea osoan indarra daukala oraindik bola-jokoaren oihartzunak, eta horren isla dira eskualdeak dituen 6 klubak (Tertanga, Urduña, Aiara, Luiaondo, Okondo eta Laudioakoak) eta bolatoki erabilgarriak mantentzen dituzten 10 herriak (Mendeika, Kexaa, Beotegi, Arakaldo, Tertanga, Urduña, Aiara, Luiaondo, Okondo eta Laudio).

**AIARAKO BIZIKLETA ERAKUSKETARIK
HANDIENA, BISITA GAITZATU LAUDION!**

AIARABIKE



KONPONKETA-TAILERRA:
Mota guzteitako konponketak egiten ditugu.



BTT IRTEERAK:
Zatoz gurekin eskualdea eta mendi ibilbideak ezagutzera.



SALMENTA:
Eskualdeko eskaintza onena dugu, bisita ezazu gure denda.

**Goikoplaza, 24
LAUDIO (Araba)**

Tlfnoa: 94 656 54 49
Maila: info@aiarabike.com



www.aiarabike.com

_Herriko plaza

_agurrak



Jon eta Julen

Apirilaren 6an eta 19an izango dira zuen urtebetetzeak. Zorionak eta ederto pasabikote!!! Muxu handi bat. **Aita eta Ama.**



Markel eta Igone

Zorionak! Markel txapeldun, oso ondopasa 5.urtebetzean! Igone neskato handia bi urte! Muakkk! **Izeko-osaba Izar eta Aiur**



June

Zorionak polite !!! urte bat!!! zu bai neskato handia. Muxu bat izeko, osaba Izar eta Aiurren partez!! muuuuakkkk **Izar eta Aiur**



Garazi

Zorionak Abris! Urte luzez jarraitu irribarrea aldean ametsak margotzen! Maite zaitugu! **Maridesastreak**



_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.com helbidera Maiatzak 2 baino lehen.

_#sexgatik (:><:)

Badakigu kondoia jartzen, ez dago irakasteko besterik ala? (Mikel)

Ikasgeletan jasotzen den sexu hezkuntza kondoia nola jarri, eta erabili edo ez horretatik etor daitezkeen gaixotasun edo infekzioetara mugatzen da, egia da. Horrek harreman sexualak koitoarekin nahastera eraman du jendartea, sexualitatearen ikuspegi partziala hedatuz. Koitoan oinarritzen den jendarteari koitozentrismo deritzogu. Latineko co-iter "batera joan", zakila aluan edo uzkiean sartzean datza koitoak. Sexualitatea arautzen eta praktika sexualak bi multzotan hierarkizatzen ikasten dugu, batetik, koitoa harreman sexual osoa, zuzena eta bakarra eta bestetik, praktika txikiak, askotan anormal edota gaixo kontsideratuta. Gainerako ekintza sexualak koitoa eta orgasmorako bide izaten irakasten digute, harreman sexualak ez kontsideratzen, adibidez, aurretiazkoak, koitoa baino lehen berotzeko jolas bezala ezagunak. Sexu hezkuntza eredu honek, genitalak, alua zein zakila soilik erabiltzera bideratzen du. Emakumeon plazer sexuala bigarren plano batera uzten da gizonaren plazeraren oinarrituz, honek harreman sexualaren pisua hartu eta espero bezala aritu beharko da. Koitoa harreman sexualen parte eta ez aukera bakartzat ulertuta, sexualitatea bere osotasunean disfrutatzeke prest al zaude? **Julene Onaindia Garcia**

Bidali zure galderak sexgatik@aiaraldea.com helbidera!

_denborapasak

		Bizilaguna, auzoa	Robota	Askatasun	Belardia, belazea
		Arrantza-rako flotgailu	Gurpilik gabeko orga	Geriza	
		Bahe, galbahe			
		IRUDIAN			
Zinezko, benetako	Endurtzea	Irudi grabagailua			
Bizkaiko udalerrria	Musika nota	Abiada			
			Denbora		
			Toles		
Beti da inor				Bokal erreplikaturia	
Pilota handi				Zuhaitz mota	
			Da, niri		
			Piraten edari		Oinarritzko edari
Azkenekoa	Lurraldeko lege			Zaren hori	
Ipar Euskal Herrian, gai	Ez eme			Kilogramoa, labur-labur	
		Balea hiltzailea			Kontso-nantea
		Bokal meheena			Sufrearen ikurra
Une honetan			Modua, iburra		

❖ Aiaralde eta Burgos arteko mendilerroa.

Erantzuna ikusteko <https://www.aiaraldea.com/users/denborapasak>

_horoskopoa



TARTALO

01.20 - 02.18

Ordenagailu aurrean hainbeste ordu eman beharrean, etxetik kanpora atera. Eguraldia lagun dugula, udaberriak dakartzan loreen usaina arnasteko zabaldu etxeko atea behingoz!



HERENSUGE

03.21-04.20

Ez duzu merezi lanean jasaten duzuna, diruak ez du osasuna erosten. Gaur egungo egoerak izutzen du, baina ez zaitez lan baldintza lotsagarriekin konformatu, zure eskubideak aldarrikatzen.



BASAJAUN

05.21 - 06.20

Beti laguntza eske ibili izatearen kalteak nabaritzen dituzu orain... Ikasketetan beti kopiatzen ibiltzeagatik orain bakarrik sentitzeak beldurtzen zaitu. Ordu gehiago sartu beharko dituzu lan bera lortzeko,



GAUEKOAK

07.21 - 08.21

Familia kide berria daukazula? Berri onak! Txikitxoek beti alaitzen baitute gure bizitza. Hala ere nagusienak ez ahaztu, eurek ere mimoak behar baitituzte. Txikiak zainduz handitu, eta handiak alaituz hegan egin ezazu!



AKERBELTZ

09.23 - 10.22

Familia arazoak? Ez zaitez larritu, gauzak konpontzen ez badira ere gertatutakoak irakatsiko dizu. Zaila da familia handi batek funtzionatzea, arazoak agertzen dira inoiz, baina behar dituzunak zurekin egongo dira beti.



ZIRIPOT

11.23 - 12.20

Lan ordutegia bakarrik jarraitzen duzu eta etxean lana jarraitzen duela maiz ahazten duzu. Garbitzeaz, afariaz, umeez ahaztu eta atsedena behar duzunaren aitzakiaz telebista aurrean esertzen zara gauero!



GALTZAGORRIAK

02.19-03.20

Askok ez dute zuk eskaintzen duzunaren adina ematen. Batzuetan arrazoiak bilatzen badituzu ere ez duzu erantzunik topatuko. Maite dituzunak maitatu baina zure burua babestu!



LAMIA

04.21 - 05.20

Ondoan ez ditugunengatik negar egitea ondo dago. Mina sentitzen baduzu ere oroitzen dituzunaren seinale da. Askok egunerokotasunean murgilduta daude, saiatu faltan dituzunak besteek gogorazten eta harro sentitu!



BASANDERE

06.21 - 07.20

Ez zara dakizunarekin inoiz konformatzen. Beharrezkoa da ikasketen jarraitu nahi izatea inguruan gertatzen dena ondo ulertu eta zalantzan jartzeko. Hala ere, eguero atsedena bat hartu eta gus-tukoan duzun pelikula ikusi.



JENTILAK

08.22 - 09.22

Zure bikoteak esaten dizuna entzuten saiatu. Sexu kontuetan aditua zarela uste baduzu ere, ez zara gozatu behar duen bakarra. Bere aholkuak entzun, harremanak hobetzean datza, ez du izorratzeko esaten, egizu proba!



MARI

10.23 - 11.22

Azkenaldi honetan ondo doakizu dena. Beharbada, bidai hori egiteko garaia heldu zaizu. Ezinezkoa izatekotan saia zaitez familiarekin edota lagunekin irteerak antolatzen eta gauzak okertuz gero jarri honekin jarraitu.



SUGAAR

12.20 - 01.19

Batzuetan gauzak ez dira nahi bezala ateratzen. Ikasketak ez dira inorentzako errazak suertatzen. Besteek egin duten bezala aurrera egingo duzu zuk ere eta helburuak, orain ez bada, beranduago beteko dituzu. Ekin kementsu!

_irakurlearen txokoa

_agenda

04.10 OSTEGUNA 19:00 ARESPALDITZA HITZALDIA Sendabelarrak Euskal Herrian Udaletxea 20:00 AUDIO Kontzertua Sangre de Muerdago, Devil, Luik eta Gasmask Terror Orbeko Etxea (5€)	04.12 LARUNBATA 12:00 AUDIO 7. GAZTE EGUNA AMURRION  10:00 AMURRIO TXAPELKETA Pilota txapelketa Frontoia 12:00 AMURRIO UME ETA HELDUEN TXOKOA Askatasun Plaza MAHAI INGURUA Kultur Etxea 14:30 AMURRIO BAZKARIA San Anton Plaza 17:30 AMURRIO KALE KONTZERTUAK Elexondo 20:30 AMURRIO MANIFESTAZIOA ETA KONTZERTUAK Juan Urrutia Plaza KONTZERTUA Andere Abesbatzaren musika emanaldia Done Petri Eliza 17:30 ARRANKUDIAGA POSTRE LEHIAKETA Kafea, tea eta postreak dastatuko dituzte Gizarte Etxea (2€) 18:00 OKONDO INAUGURAZIOA Hitzaldia, marrazki lehiaketa eta luntxa Okondogoiena	04.13 IGANDEA 11:00 AMURRIO AZOKA Fosil eta mineralen era-kusketa Frontoia 13:00 AMURRIO AURKEZPENA Gure Esku Dago: hitzaldia, giza katea... Juan Urrutia Plaza 19:00 AUDIO ASTE SANTUKO KONTZERTUA San Roke Elkarte Done Petri Eliza 04.15 ASTEARTEA 11:30 AUDIO UDAL AURKEZPENA Ugarte Plazaren berritze proiektua Erabilera Anitzeko Aretoa 04.16 ASTEAZKENA 16:00 AUDIO HITZALDIA Emakumeen jakituria mintzagai KZ Gunea 04.18 OSTIRALA 18:00 AMURRIO UMEEN AISIALDIA Maskara tailerra Gaztelekua 04.19 LARUNBATA 08:00 URDUÑA AUZOLANA Konponketa lanak El Terrero	18:00 AMURRIO UMEEN AISIALDIA Altxorraren bila Gaztelekua 19:00 URDUÑA KONTZERTUA Urduñako abesbatza Andra Mari Parrokia 04.20 IGANDEA 17:00 AMURRIO UMEEN AISIALDIA Gaztelekua 04.25 OSTIRALA 17:00 AMURRIO UMEEN AISIALDIA Larrinaga kalea 18:30 URDUÑA HITZALDIA Drogen zentzuzko kontsumoa posible da? Gaztetxea 04.26 LARUNBATA 11:00 OROZKO JAIA Orozkoko Gazte Asanbladaren IV. urteurrena Gaztetxea 12:00 ARTZINIEGA HERRI ORATZEA Etnografia Museoa 05.01 LARUNBATA 12:00 AUDIO MANIFESTAZIOA Maiatzak 1, LAB deituta Lamuza Plaza 20:00 AUDIO KONTZERTUA Erio, Killerkume, Viva Bazooka, KLS Orbeko Etxea (5€)
--	--	--	---

ZINEMA

04.12 LARUNBATA

“RUSH”
LAUDIOKO ULHEn
17:30etan eta 20:00etan (2€)
12 urtetik aurrera



04.13 IGANDEA

“AGOSTO”
AMURRIOKO ANTZOKIAN
19:30etan (4.8€)
16 urtetik aurrera



04.14 ASTELEHENA

“AGOSTO”
AMURRIOKO ANTZOKIAN
20:00etan (3.6€)

04.19 LARUNBATA

“DIAMANTES NEGROS”
LAUDIOKO ULHEn
17:30etan eta 20:00etan (2€)
12 urtetik aurrera



04.26 LARUNBATA

“TAKE SHELTER”
LAUDIOKO ULHEn
17:30etan eta 20:00etan (3€)
12 urtetik aurrera

“LA LEGO PELICULA”
AMURRIOKO ANTZOKIANn
17:30etan (3.6€)
Adin guztientzako



“12 AÑOS DE ESCLAVITUD”
AMURRIOKO ANTZOKIANn
19:30etan (4.8€)
16 urtetik aurrera



04.27 LARUNBATA

“LA LEGO PELICULA”
AMURRIOKO ANTZOKIANn
17:30etan (3.6€)

“12 AÑOS DE ESCLAVITUD”
AMURRIOKO ANTZOKIANn
19:30etan (4.8€)

04.28 LARUNBATA

“12 AÑOS DE ESCLAVITUD”
AMURRIOKO ANTZOKIANn
20:00etan (3.6€)

Jimmy jazz
gasteiz



API 16// DJ LORO & SELEKTAH STEPI
22:00 (DOAN)



API 25 // LEIVA
21:30 (20 / 25 €)



MAI 8 // LA PEGATINA
21:00 (12 / 15 €)



MAI 9 // A PERFECT NIGHT AT JIMMY JAZZ
Homenaje a Lou Reed: Capsula + We Are Standard + Rafael Berrio + Sonic Trash + Petti + Kirmen Uribe
20:30 (12 €)



MAI 10 // KASE.O JAZZ MAGNETISM
21:30 (15 / 18 €)

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre
higiezinen agentzia

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 95.000 €
75 m², logela 3, bainugela eta sukaldea balkoiekin, jakitokia, kanpoaldera, bizitzera sartzeko prest.
Erref.: 167.455



PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 160.000 €
57 m², logela 2, bainugela 2, terraza, kanpoaldera, balkoia, igogailua, trastelekua, garajea, negoziagarria.
Erref.: 159.527

BI BIZITZAKO ETXEA SALGAI LAUDION
Prezioa: 464.000 €
193 m², logela 4, bainugela 4, terraza, garajea, txokoa tximiniarekin, 408 m²-ko lorategia, bizitzera sartzeko prest.
Erref.: 99.862



LURSAILA SALGAI ARRANKUDIAGAN
Prezioa: 124.000 €
1.200 m²-ko lursaila, 220 m²-ko eraikigarritasun maximoa etxebizitzan eta soitoan.
Erref.: 167.457

PISUA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: 212.000 €
90 m², logela 3, bainugela 2, bi terraza, trastelekua, garajea, igogailua, 120 m²-ko lorategia, negoziagarria.
Erref.: 167.456

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 227.000 €
95 m², logela 2, bainugela 2, kanpoaldera, 30 m²-ko terraza, trastelekua, igogailua, garajea, negoziagarria.
Erref.: 167.446

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 50.400 €
77 m², logela 3, bainugela, balkoi 3, trastelekua, igogailua, eraberritzeko, herrigunean, babes ofizialeko etxebizitza.
Erref.: 167.450

www.etxaurre.com
Tfnoa: 94 672 85 50

_ezin galdu

PARKEDADA
Antolakuntza lanak erratzeko, ahal baduzue, izena eman ezazue aurretik hurrengo posta elektronikoa (taldeka edo norbanako gisa egin dezakezue):
eposta: sosaudiokolamuzaparkea@gmail.com

SOS LAUDIOKO LAMUZA PARKEA
Grabaremos en vídeo todo el evento para hacer un video-spot reivindicativo que colgaremos en las redes sociales y enviaremos a los medios de comunicación.

Dolumin Barikuan, apirilak 11. 13:15ean.
Viernes de Dolores, 11 de abril de 2014. A las 13:15.
Parte hartu ezazu, anima zaitetz!
Lamuzako parkeak behar zaitu!

- Parque de Lamuza: - Kultur Etxea: Niños y niñas, los más pequeños acompañados de padres y madres. - Arcos: Grupos culturales y artistas.
- Patio del Instituto: Grupos deportivos y deportistas.
- Arcos de Zumalakarregi: Grupos sociales y personas.

Que cada uno lleve ropa y accesorios acordes con el grupo del que forme parte. El resto de la ciudadanía que deje volar su imaginación.



SOS LAUDIOKOLAMUZA PARKEDADA: Ekimen berezi bat egingo du SOS Audioko Lamuza Parkea plataformak ostiralean, Dolumin Barikuan. Herriko elkarte, eragile zein norbanakoei deia luzatu diete: 13:15ean parkearen inguruan bilduko dira, Parkearen berreskurapena aldarrikatzeko bideo bat grabatzeko.

_kontra

aiaraldea



Itziar
Urkijo Cela
PSIKOPEDAGOGO

_Leihotik

Garena

Garai latzak denon ahotan daude. Galderak ere. Beharrezkoa egiten zaigu gure buruari galdetzea zeri egin diezaiokgun uko, eta zer behar dudana naizena izaten jarraitu ahal izateko. Existentziaren koska Erantzuna ematerakoan, zenbatek izendatuko genituzke erleak ezinbestekoen artean? Erantzuna hutsa bada ere, frogatuta dago hauen iraungitzearekin giza espeziea lau urtetan desagertuko litzatekeela Askotan biziraute prozesu bera ez da ezinbestekotzat hartzen. Askotan, beharrak ezbehar izaten dira eta ez nahitaezko direnak behar.

Gaur egun, askok erantzungo lukete ametsak hitzarekin galdetzerik hori. Motibazio gisa uler daiteke, esperantzaren seinale eta garapenaren ikur, ametsak amets baitira betetzear daudelako.

Baina hau zertarako? Zer da garena izaten jarraitzea bultzatzen gaituena? Zoriontasuna. Hau da benetan beharren artean beharrezkoena. Serendipiak alegia, bila ibili ez eta espero gabe bat-batean topatzen ditugun gauza positiboan esperoan ematen dugu bizitza. Besterik ez.

Maite Garcia iridiologoa

“Oso azkar bizi gara. Norabide antinaturala daramagu eta horrek gaixotu egiten gaitu”

MAITE GARCIA (1978, Urduña) iridiologoa da. Begietatik gorputz eta pertsonen arazoak irakurtzen ditu. Arazoen aurrean baikortasuna eta bizitzeko ilusioa errezetatzen ditu.

ERREDAKZIOA Iizar Mendiguren **Zer ikusten da begietan?**

Irisak ez du inoiz diagnostikoa ematen, pertsona barrutik nola dagoen esaten dizu. Teknika Ig-natz Von Perczely medikuak sortu zuen, 1836an hontz batek haren gelatik ihesi hanka apurtu zuelako. Une hartan animalia iresean marka bat ateratzea zela ikusi zuen, sendatu ahal da desagertzen joan zena. Antzina, ez zegoen diagnostikatzeko erarik, gorputza entzuten zuten gertatzen ziren gauzak ulertzeko. Txinan belarriak erabiltzen ziren, baina oinak, eskuak, mingaina... ere baliatu izan dira. Iraganeko eta etorkizuneko lesio batzuk begietan ikusten dira.

Hainbeste jakiteak ez du beldurrik ematen?

Niri ez, eta jendearek ere ez. Aurrez ikusten diren gauzak lehenago landu eta konpondu daitezke. Batzuetan gaixotasuna berandu hartzen ditugu eta ez dira hain

erraz konpontzen. Guk medikuntza naturalarekin lan egiten dugu, sendatze denbora ezberdina da.

Zer du medikuntza naturalak kimikoak ez duena?

Medikuntza naturalean gorputzari behar duena ematen diogu, defentsa mekanismoak aktibatuz gorputzak egin diezaien aurre arazoari. Medikuntza kimikoak sintomatologia du ardatz, burukomina baduzu horretarako zerbaite ematen dizu. Medikuntza naturalak zergatik eta jatorriak bilatzen ditu.

Zein da mina sendatzeko lehen pausua?

Pertsona begiratzea, zein den arazoaren jatorria bilatzea. Eta pertsona entzutea. Normalean horrela pistak ematen dituzte.

Eta ondo bizitzeko botika?

Baikortasuna. Arazoei positiboki aurre egiten badiozu askoz errazagoa da emaitza onak lortzen.

Jarrera eta energia kontua da. Haserretzean, tristetzean... gure zelulak intoxikatzen dituen substantziak sortzen ditugu. Horrek, gehiago gaixotzea dakar. Nire kontsultan minbizia duen jende asko dago baikortasunez aurre egiten diona eta ateratzen dena. Jakina, denek ez dute zorte bera izan, baina positiboki aurre hartzen badiozu gaixotasunari bidea beti izango da ezberdina.

Zure ustez zein da egungo gaixotasun handiena?

Oso azkar bizi gara, norabide antinaturala daramagu eta horrek gaixotu egiten gaitu. Urakanak bezala bidean dagoen dena harrapatzen

dugu, bidea disfrutatu ordez.

Zer errezetatuko zenioke jendearek?

Bizitzeko ilusioa. Duguna baloratu eta disfrutatu behar da, ez falta zaiguna. Zoriontsua ez da asko duena, gutxi behar duena baizik.



 **elkarlan**
asesores www.elkarlan.eu

Foru Kalea, 2 · **AMURRIO**
Tel. 945 39 33 51

Lamuza, 12 · **LAUDIO**
Tel. 94 672 74 28

Aseguru bat pertsona bakoitzarentzat

www.elkarseguro.com

